



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko azaroaren 20a

128. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—SODENAk 2002-2013 urte-bitartean enpresa partaidetuetan eginiko inbertsio finantzarioei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

SODENAK 2002-2013 urte-bitartean enpresa partaidetuetan eginiko inbertsio finantzarioei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, SODENAK 2002-2013 urte-bitartean enpresa partaidetuetan eginiko inbertsio finantzarioei buruzkoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

SODENAK 2002-2013 urte-bitartean enpresa partaidetuetan eginiko inbertsio finantzarioei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Txostenaren helburuak eta norainokoa (3. or.).
 - III. Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L. (4. or.).
 - III.1. Helburu sozialak eta eginkizunak (4. or.).
 - III.2. Plan estrategikoa (5. or.).
 - III.3. Kotizatu gabeko enpresen kapitalean parte hartzeko prozedura. (5. or.).
 - III.4. Langileak (6. or.).
 - III.5. Araudia (7. or.).
 - IV. Iritzia (8. or.).
 - IV.1. Enpresetako partaidetzak. (8. or.).
 - IV.2. Enpresetako partaidetzen salmenta eta emaitzak. (9. or.).
 - IV.3. Parte hartutako enpresei emandako maileguak (9. or.).
 - IV.4. Iritzi orokorra (9. or.).
 - V. Ondorio orokorrak eta gomendioak (11. or.).
 - V.1. Kotizatu gabeko enpresetan egindako finantza-eragiketak (11. or.).
 - V.2. Iberdrola, S.A.n duen partaidetza (14. or.).
 - V.3. Sodenaren funts berekien bilakaera 2002tik 2013ra (15. or.).
 - V.4. Gomendioak (17. or.).
 - VI. Parte hartutako enpresetatik aztertu direnak (18. or.).
 - VI.1. Nekazaritzako elikagaien sektorea (18. or.).
 - VI.2. Bioteknologiaren sektorea (21. or.).
 - VI.3. Energiaren eta ingurumenaren sektorea (25. or.).
 - VI.4. Logistika (29. or.).
 - VI.5. Sektore teknologikoa (31. or.).
 - VI.6. Turismoa (34. or.).
 - VI.7. Beste jarduera sektore batzuk (37. or.).
 - VI.8. Sozietate publikoak (42. or.).
1. eranskina: 2002tik 2013ra bitarteko aldiaren parte hartutako enpresa kotizazio gabeak (44. or.).
2. eranskina: 2002-2013 epean parte hartutako enpresei emandako maileguak (47. or.).
3. eranskina: 2002-2013 aldiko finantza-desinbertsioak parte hartutako enpresen kapitalean (49. or.).
4. eranskina: 2013ko abenduaren 31n parte hartutako enpresak (50. or.).

I. SARRERA

2013ko irailaren 30ean, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen, Parlamentu-talde Popularrak eskatuta, Kontuen Ganberari eskatzea Sodena enpresa publikoaren 2002tik 2012ra bitarteko urteei buruzko fiskalizazio txosten bat eskatzea, honako gaiei erreparatuta: parte hartu duen edo laguntza finantzarioa eman dien enpresen kopurua; zein sektoretakoak diren; egindako ekarpenak eta haien emaitzak; proiektu batean inbertitzeko irizpideak; prozesuaren balorazio orokorra; enpresak zein egoeratan dauden, eta Sodenaren funts berekien bilakaera.

Kontuen Ganberak lanaren norainokoa luzatu zuen, 2013a ere hartzeko.

Sociedad de Desarrollo de Navarra, Sodena, S.A., enpresa publikoa 1984an eratu zen.

2011n, "Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.A.", "Navarra de Financiación y Control, S.A.U.", "Fondo Jóvenes Empresarios Navarros, S.A.U." eta "Navarra de Gestión para la Administración, S.A.U." bategitearen ondorioz, "Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L." erantzukizun mugatuko sozietate berria sortu zen. Sozietate publiko berri horri batera eskualdatu zizkieten beren ondare sozialak bai antzinako Sodena, S.A.k, bai bategitean bildutako beste hiru sozietate publikoek ere, eta Sodena, S.L.k haien guztien eskubideak eta betebeharrak hartu zituen.

Auditoriako lau teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak egin du lan hau, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu Sodena, S.L.ko langileek lan hau egitean emandako laguntza.

II. TXOSTENAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Fiskalizazioaren helburua da iritzi bat ematea ondoko alderdi hauei buruz:

- Parte hartutako enpresetan 2002tik 2013ra eginiko finantza-inbertsioen izaera, kopurua eta zenbatekoa.
- Parte hartutako enpresetan 2002tik 2013ra egindako desinbertsioaren emaitza.
- Aplikatzekoa den araudiaren eta parte hartutako enpresetako inbertsio finantzarioak direla-eta Sodenak ezarritako politika eta prozeduren betetzea.
- Sodenaren funts berekiek 2002tik 2013ra izan duten bilakaera.

Lanaren norainokoak hartzen ditu bai "Sodena, S.A." sozietateak –2002tik 2010era– eta "Sodena, S.L.k" –2011tik 2013ra– partaidetza izandako enpresetan egindako finantza-inbertsioak, bai sozietate horien ondare garbiaren bilakaera ere.

Fiskalizazioak ez ditu hartzen azkendutako "Navarra de Financiación y Control, S.A.U.", "Navarra de Gestión para la Administración, S.A.U." eta "Fondo Jóvenes Empresarios Navarros, S.A.U." sozietate publikoek 2002tik 2010era egin zituzten finantza-inbertsioak.

Lan honen ondorioek oinarri dute, besteak beste, honako dokumentazioa: Sodenaren 2002tik 2013a bitarteko urteko kontuak, kanpoko profesionalek auditatuak; ekitaldi bakoitzeko kudeaketari buruzko txostena; kontabilitate-erregistro lagungarriak; Sodenaren Administrazio Kontseilua-aren aktak; txosten teknikoak; negozio planak, eta parte hartutako sozietateen hitzarmen osagarriak.

Fiskalizazioa egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta lanaren helburuak betetzeko beharrezkotzat jo diren hautapropa edo prozedurak aplikatu dira.

III. SOCIEDAD DE DESARROLLO DE NAVARRA, S.L.

III.1. HELBURU SOZIALAK ETA EGINKIZUNAK

Sodena, S.L. ren helburu soziala inbertsio- eta finantzaketa-jarduerak egitea da.

Sodena, S.L.k honela definitzen du bere egitekoa: Nafarroarako enpresa-proiektuen sorrera eta garapena bildu, identifikatu eta bultzatzea, bai tokiko jatorria dutenena, bai kanpotik erakarritakoena ere.

Honakoak dira Sodena, S.L.k bere helburua betetzeko gauzatzen dituen tresna finantzarioak eta eginkizunak:

- Enpresen kapital sozialean parte hartzea.
- Ikerketa, berrikuntza eta garapen proiektuak sustatu eta laguntzea, elkarteak sustatuz eta haietan parte hartuz.
- Inbertsio proiektuak sustatzea, funtsak –higigarrienak, bermekoak nahiz arrisku-kapitalekoak– sustatuz eta haietan parte hartuz; eta arrisku-kapitaleko funts edo sozietateekiko aholkularitza eta lankidetzak.
- Finantza-laguntza ematea pertsona fisiko zein juridikoei, maileguak, kredituak, abalak eta fidantzak emanez, bai eta parte hartutako entitateek jaulkitako errenta finkoko tituluak eskuratuz ere.
- Enpresak saneatu eta birmoldatzeko prozesuetan laguntza ematea, modu osagarrian.

Honakoak dira Sodenak inbertsio proiektuak finantzatzeko erabiltzen dituen finantza-tresna nagusiak:

Arrisku-kapitala

Sortzea sustatzen dituen enpresen kapitalean parte hartzea, edo, bestela, kapitala handitzen duten enpresetan edo bat egiten edo berregituratzen diren enpresetan. Sodena, S.A. ren sorrerari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legeak –2011n azken duen Sodena, S.A.– honako mugak ezartzen zituen –kasu berezietan alda zitezkeen mugak ziren, Foru Diputazioak berariaz onetsita–:

Sodena, S.A.k enpresetan duen partaidetza gutxienez 100eko 5ekoa eta, gehienez 100eko 45ekoa izanen da, hamar urteko gehieneko epean; bestalde, partaidetza horrek ez du hartuko sozietate publikoaren baliabide berekien 100eko 15ekoa baino gehiago.

Maileguak eta abal tekniko eta finantzarioak ematea

Sodenak mailegu sinpleak eman ahal ditu, orokorrean, euriborrak gehi diferentzial batek osatutako interes-tasa finko batekin, bai eta partaidetza-maileguak ere.

Honakoak dira azken horiek ezaugarriak:

- Interesak osagarri finko bat eta osagarri aldagarri bat izanen ditu, azken hori enpresaren negozio-adierazleei lotua.
- Kapitalizagarriak izanen dira, eta, orokorrean, enpresan parte hartzeko eragiketen bitartez amortizatuko dira.
- Kredituen lehentasun ordenan kreditu arrunten ondoren kokatuko dira.
- Enpresaren funts bereki gisa kontatuko dira, ondare-desoreka desegiteko arrazoien eraginetarako.

III.2. PLAN ESTRATEGIKOA

2001ean, Sodenak "Gogoeta estrategikoa" izenburuko agiri bat onetsi zuen, non honako jarduketa-ildoak jasotzen baitziren:

- Lehentasunezko zerbitzuak: aisia/turismoa, logistika, telekomunikazioak, informatika, teknologia berriak orokorrean, energia berriztagarriak, ingurumena eta bioteknologia.
- Dagoen industria osatzea, haren hazkundera sustatzea eta I+Gren bitartez, bategiteen eta abarren bitartez ainguratzea.

Plan estrategikoa kudeatzearen eraginetarako, Sodenak, 2002an, Aginte Integralaren koadroa onetsi zuen, sozietatearen helburu, adierazle eta planak adierazita. Tresna horren euskarria proiektuen araberako aplikazio informatiko bat da, 2004an ezarritakoa.

2012an, Sodenak 2012-2014 aldirako plan zuzendaria onetsi zuen, non zortzi jarduketa-lerro jasotzen baitira:

- Lau sektore estrategiko: Bioteknologia, nekazaritza-industria, energia eta IKTak.
- Nazioarteratzea, Nafarroako enpresen nazioarteko hazkunderako laguntzen bitartez eta Nafarroarako atzerriko inbertsioa erakarriz.
- Abalak.
- Hazi-kapitala: Funts Gaztearen eta Start Upen bitartezko jarduketak.
- Besterik: bestelako enpresa-proiektuen kudeaketa biltzen du. Horretan tokia dute lau sektore estrategikoetako ezeinetan sartu ez baina baino Foru Komunitatearen garapenerako balioa dakartenenek.

III.3. KOTIZATU GABEKO ENPRESEN KAPITALEAN PARTE HARTZEKO PROZEDURA.

Honakoak dira kotizatu gabeko enpresen kapitalean Sodenak parte hartzeko prozedura definitzen duten irizpideak:

Behin inbertsio-proiektu bat aurkeztuta, Sodenak, enpresari finantza-baliabideak eman baino lehen, honako alderdiak hartzen ditu kontuan:

- Inbertsio-proiektua eta zuzendaritza-taldea Nafarroan kokatuta izatea.
- Sustatzaile eta akziodunek konpromiso ekonomikoa hartzea, diru bidezko parte hartzeari eta ekarpenari dagokienez, eta hirugarrenei aldi baterako parte hartzen lagatzeko prest egotea.
- Zuzendaritza-taldearen gaitasuna eta proiektuarekiko konpromisoa.
- Enpresa-proiektuaren ezaugarriak, besteak beste: sendotasuna; bereizkuntza; Nafarroan lehiarik ez izatea; bezeroak identifikatzea; eskariak era abarrekoak, sortu berriak diren produktu edo enpresen kasuan; Nafarroarentzat sortutako balioa, zuzeneko eta zeharkako inbertsio-bolumenaren errentagarritasun sozialari dagokienez; sektorea; sortutako enplegua eta haren kualifikazioa eta errentagarritasun fiskala; eta, gutxienez ere, ehuneko 12ko finantza-errentagarritasuna izatea.

Enpresa-proiektua negozio plan batean islatu beharko da, eta plan hori Sodenaren edo/eta hirugarrenen talde batek aztertu eta ebaluatuko du. Negozio planak honakoak jasoko ditu, parametro nagusien artean: aurreikusitako inbertsioa; merkatuari eta sektoreari buruzko azterlana; giza baliabideen plana; zuzendaritza taldea; azterketa ekonomiko-finantzarioa; planaren egutegia, eta AMIA analisia.

Itunak sinatzen dira parte hartutako enpresarekin, eta haietan, besteak beste, honakoak arautzen dira. Sodenak parte hartutako enpresan irauteko konpromisoa, hartatik irteteko mekanismoak eta partaidetzak balioesteko prozedura.

Behin Sodenako teknikari batek proiektua ebaluatuta, inbertsio-proposamen bat eginen du, zeina Inbertsio Batzordeak eta Sodenaren Administrazio Kontseiluak onetsiko baitu.

Sodenaren Administrazio Kontseiluak 2002tik 2013ra 11 eta 13 kide bitarte izan ditu, eta hauren burua Industria Departamentuko kontseilaria izan da. Gutxi gora-behera, kontseilarien erdiak Industria, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko, Nekazaritza eta Abeltzaintza Departamentuko, Osasun Departamentuko eta Nafarroako Zerga Ogasuna Erakunde Autonomoko goi karguak izan dira; gainerakoak, aitortutako ibilbidea izan duten profesional nahiz enpresaburuak eta akziodun minoritarioaren ordezkariak izan dira.

Sodenak inbertsioaren jarraipena egiten du parte hartutako enpresaren administrazio kontseiluan parte hartzearen bitartez, eta oro har, inbertsio proiektu guztiak sozietate publikoan haien jarraipenaren ardura hartzen duen kudeatzaile bati esleitzen zaizkio.

Parte hartutako enpresetako finantza-inbertsioen jarraipena berariazko aplikazio informatiko baten bitartez egiten da.

III.4. LANGILEAK

Sodenan enplegatutako pertsonen batez besteko kopurua eta langile gastuak honakoak izan ziren 2002tik 2013ra bitarteko urte batzuetan:

	2002	2005	2006	2010	2011(1)	2013
Zuzendari kudeatzailea	1	1	1	1	1	1
Arloetako zuzendariak	0	0	3	3	4	5
Proiektuetako kudeatzaileak	7	7	5	4	4	4
Proiektuetako teknikariak	1	0	1	3	6	6
Administrariak	3	4	3	3	6	3
Garbitzailea	1	1	1	0	0	0
Guztira	13	13	14	14	21	19
Langile-gastuak (2)	846.795	912.997	1.137.999	1.218.440	1.772.158	1.377.572
Langileria arloko batez besteko gastua	65.138	70.230	81.286	87.031	84.388	72.504

(1) 2011n, Sodena, S.A.k Nafinco, NGA eta Fondo Joven sozietateekin bat egin zuen.

(2) Ordainsariak eta zama sozialak biltzen ditu.

2006an, antolamendu berri bat ezarri zen, langileek inbertsio-proiektu berriak sustatzearen eta sortzearen arloetan arduraldi handiagoa izan zezaten. Horretarako, Sodenaren jardura bi arlotan egituratu zen: inbertsioak sustatzeko arloa eta inbertsioetako arloa. Gaur arte, Sodenaren langileak nagusiki inbertsio proiektuen kudeaketan jardun dute nagusiki, eta, horren barnean, zorroaren jarraipenean.

2012an, Sodena, S.L.ren antolamendua honako mailen arabera egituratu zen:

- Zuzendari kudeatzailea.
- Bost pertsonen osatutako zuzendaritza taldea: finantzen eta administrazioaren arduraduna eta arloetako lau arduradun.
- Proiektuetako lau kudeatzaile.
- Proiektuetako sei teknikari.
- Administrazioako hiru langile.

Arloetako arduradunek eta proiektuetako kudeatzaileek eta teknikariek Sodenaren 2012-2014 aldirako plan zuzendarian finkatutako zortzi jarduketa-sektoreetako bina hartu zituzten.

III.5. ARAUDIA

Honakoa da Sodenak 2002tik 2013ra egindako eragiketei aplikatzekoa zaien araudia:

Sozietate publikoaren estatutu sozialak.

Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.A. sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legea.

Sodena, S.A. ren eraketari buruzko 68/1984 Foru Dekretua, 109/1984 Foru Dekretuaz aldatua.

Abenduaren 20ko 1643/1990 Errege Dekretua, Kontabilitate Plan Orokorra onesten duena, 2002tik 2007ra bitarteko ekitaldietarako.

Azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretua, Kontabilitate Plan Orokorra onesten duena, 2008ko ekitalditik aurrerako ekitaldietarako.

1885eko abuztuaren 22ko Errege Dekretua, Merkataritza Kodea argitaratzekoa.

Abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretua, Sozietate Anonimoen Legearen Testu Bategina onestekoa (2010eko irailaren 1era arte egon zen indarrean).

Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, zeinaren bitartez onesten baita Kapital-eko Sozietateei buruzko Legearen Testu Bategina (2010eko irailaren 1etik aurrera dago indarrean).

Irailaren 27ko 17/1985 Foru Legea, Nafarroako Ondareari buruzkoa.

Apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legea, Nafarroako Ondareari buruzkoa.

Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

Abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoa.

Ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa.

IV. IRITZIA**IV.1. ENPRESETAKO PARTAIDETZAK.**

2003tik 2013ra bitarteko aldian, Sodenak, guztira, 323,69 milioi inbertitu zituen honako izaerako enpresetako partaidetzetan:

	Inbertsioa
Kotizatu gabeko enpresetan izandako partaidetza	150.132.374
Kotizatutako enpresetan izandako partaidetza	173.556.238
Guztira	323.688.612

- Sodenak 150,13 milioi euro inbertitu zituen kotizatu gabeko 69 enpresetako kapitalean, eta, gainera, 14,84 milioi euroko ekarpena egin zuen Cima Proiektuko enpresen aldi baterako batasunerako, biomedikuntza-proiektuko ikerketa- eta garapen-gastuen ehuneko 10 finantzatze aldera.

Kotizatu gabeko enpresen artean, honakoak nabarmentzen dira, beren kopurua dela-eta: 44,64 milioi Corporación Energía Hidroeléctrica de Navarra enpresan; 10,32 milioi Burnizko enpresan; 10 milioi Fondo Ysios de Biotecnología izenekoan; 8,77 milioi Caviar Perse enpresan; 7,7 milioi Tenaria enpresan; 6,06 milioi Estudios de Ingeniería Adaptada enpresan, eta 5 milioi Kyb Advances Manufacturing enpresan. Hau da, inbertsioen ehuneko 62 zazpi enpresatan dago konzentratuta; horien artean, Corporación Energía Hidroeléctrican egindako inbertsioek guztira inbertitutakoaren ehuneko 30 egiten dute.

- Kotizatu gabeko enpresetan egindako inbertsio gehienak enpresa-hastapeneko, hazkundeko eta zabalkundeko proiektuetan eginak dira. Nafarroarekin lotutako proiektuak dira, zuzenean nahiz zeharkako lehiarik gabeak, eta honako jarduera-sektoreei dagozkie:

Sektorea	Enpresa-kopurua	Inbertsioa, guztira	Inbertsio guztien gaineko ehunekoak
Energia eta ingurumena	12	53.344.140	35,5
Bioteknologia	16	25.974.637	17
Bestelakoak	12	30.851.633	20,5
Teknologikoa	13	16.514.585	11
Nekazaritza-elikagaiak	8	14.022.034	9,5
Sozietate publikoak	4	7.583.605	5
Turismoa	2	1.223.940	1
Logistika	2	617.800	0,5
Guztira	69	150.132.374	100

Kapitaleko inbertsioen ehuneko 74,5, 111,70 milioi guztira, Sodenak estrategikotzat edo lehenesteko moduko jardueratzat jotzen dituen sektoreetako 53 enpresari bideratu zaizkie. Honakoak dira sektore horiek: energia eta ingurumena, sektore bioteknologikoa, sektore teknologikoa, nekazaritza elikagaien, turismoa eta logistika. Gainera, 14,84 milioi euro eman zizkion sektore bioteknologikoarekin lotutako enpresen aldi baterako batasun bati.

30,85 milioi euroko kopurutik, ehuneko 20,5 Sodenak lehenetsitako jardueratzat jotako sektoreetan sartzen ez diren 12 enpresatan inbertitu zen. Enpresa horiek honako jarduerak egiten zituzten, besteak beste: ebakitzeko eta soldatzeko makineria, kirol jantziak, motelgailuak, hormigoia eta aluminioa, gaztelaniaren ikaskuntza, eta zuzendari eta enpresaburuen prestakuntza, besteak beste.

Gainerako ehuneko 5a, 7,58 milioi, honako sozietate publikoen kapitalean inbertitu zen: Fondo de Jóvenes Empresarios de Navarra, Navarra de Suelo Industrial, Start Up Capital eta Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra.

- 2005ean, Sodena, S.A.k 173,56 milioi euro inbertitu zituen Iberdrolaren kapitalaren ehuneko bat erosten. 2005etik 2007ra doan aldirako, akzioen arriskua estaltzeko eragiketa bat kontratatu

zen. Estaldura horren likidazioak, 2007ko maiatzean muga-egunera iritsi zenean, 90,95 milioi euroko gastua ekarri zuen.

IV.2. ENPRESETAKO PARTAIDETZEN SALMENTA ETA EMAITZAK.

2002tik 2013ra doan aldian, Sodenak kotizatu gabeko 46 enpresatan zeukan partaidetza saldu zuen. Horietatik, 16tan inbertsioa 2002a baino lehen egin zen, eta 2013an Cima proiektuko enpresen aldi baterako batasunean parte hartzeari utzi zion, hura desegin eta likidatu ondoren. Lorturiko emaitzak hauexek izan ziren:

	Desinbertsioa	Emaitza garbiak
Kotizatu gabeko enpresetan izandako partaidetza	97.516.178	342.318.668
Cima Proiektuko enpresen aldi baterako batasunerako ekarpena		-14.840.246
Guztira	97.516.178	327.478.422

Guztira, 371.012.798 euroko etekina lortu zuen, 13 enpresetako partaidetzak salduz. Kotizatu gabeko 26 enpresetan –horietatik 11 azkendu dira edo likidatzeko prozesuan daude–, 28.694.130 euroko galerak izan zituen, guztira. Gainerako enpresetan, emaitza zero izan zen.

Cima proiektuko enpresen aldi baterako batasunerako 2002-2013 aldian egindako ekarpena 14.840.246 eurokoa izan zen, zeren eta urteko ekarpena I+G gastu gisa kontabilizatu baitzen aipatutako aldiko ekitaldi bakoitzean.

Honako etekinak nabarmendu behar dira: 352,57 milioi eurokoa, EHNn lortutakoa; 8,74 milioi eurokoa, Gas Navarran; eta 5,38 milioi eurokoa, Ecoenergía Navarran.

Galeren aldetik, honakoak dira nabarmendu beharreko emaitza negatiboak; 10,32 milioikoa Burnizkon; 7,65 milioikoa Tenarian; 2,35 milioikoa Noi Navarran, eta 2,16 milioikoa CTC Construcciónen.

Emaitza nulua lortzen da kapitala murrizteko eragiketak egin direnean, salbu eta Epsilon 5 eta Indifarma enpresen kasuetan, zeinetan 1.084.070 euroan eta 605.305 euroan, hurrenez hurren, eskuratutako partaidetzak erositako prezio berean transmititu baitziren.

IV.3. PARTE HARTUTAKO ENPRESEI EMANDAKO MAILEGUAK

2002tik 2013ra doan aldian, Sodenak 109.272.532 euro mailegatu zizkien kotizaziorik gabeko parte hartutako 39 enpresari, oro har, merkatu indarduneko interes-tasa ordainduta. Interes horrek, partaidetza-maileguen kasuan, ordainketa gehigarri bat zeukan, enpresak mugarrri batzuk (etekinak, salmentak, Ebitdak eta abar) lortzearen arabera.

Nabarmentzekoak dira Parquenasoa sozietateari 2005eko ekitalditik emandako maileguak, 55,43 milioi euro egiten dutenak; mailegu horiek ez dute interesik sortu, zeren eta enpresa ez baita errentagarritasunaren atalaserira iritsi; haren andeatzea, 2013ko abenduaren 31n, 32 milioi eurokoa dela jotzen da.

IV.4. IRITZI OROKORRA

- Sodenaren 2002tik 2013ra bitarteko urteko kontuek beren alderdi nabarmen guztietan islatzen dituzte enpresen kapitalean parte hartzeko finantza-eragiketak, bai eta sozietate publikoak parte hartutako enpresei aldi horretan maileguak emateko jarduketak ere; azkenik, eragiketa horiei buruz kudeaketa-txostenean jasotako informazioa bat dator ekitaldi bakoitzeko urteko kontuetan islatutakoarekin.

- Sodenak 2002tik 2013ra inbertsioak egin zituen kotizatu gabeko 69 enpresen guztizkotik 37 enpresaren lagin batean egiaztatu dugu ezen, orokorrean, Sodenak eginiko kapitaleko partaidetzen finantza-eragiketak sozietate publikoak onetsitako prozedura eta irizpideen arabera izapidetu zituela, eta bere araudia bete zuela. Horri dagokionez, inbertsioa parte hartutako enpresa-

ren kapitalaren ehuneko 5 eta 45 bitartekoa izan zen; enpresan irauteko gehieneko epea 10 urtekoa izan da, eta partaidetzak ez zuen Sodenaren baliabide berekien ehuneko 15 gainditu.

Hala eta guztiz, Sodenak parte hartutako kotizatu gabeko 51 enpresen ehuneko zortzian 2013ko abenduaren 31n 10 urteko iraupen-epea gainditu da. Ez dago jasota Foru Administrazioak berriaz baimena eman duenik irauteko mugaren gainditzeko. Adostutakoa baino denbora gehiagoz gelditzeko arrazoi nagusia enpresaren bilakaera negatiboa izan da.

- Iberdrolaren akzioak erosteak berarekin ekarri zuen Sodenak enpresaren kapitalaren ehuneko batean parte hartzea. Portzentaje hori sozietateen kapitalean parte hartzeko estatuetan ezarritako gutxienekotik, ehuneko bostetik, behera dago. Nafarroako Gobernuak erabaki hori hartu zuen interes estrategikoko arrazoiengatik, baina ez zegoen finantza-analisietan oinarriturik.

Ganbera honek 2007ko abenduan Iberdrolako akzioen erosketari buruz eman zuen fiskalizazio txostenean, jo genuen eragiketa hori atipikoa eta ez-ohikoa zela Sodenaren, S.A.ren inbertsio-politikaren barruan. Sodenak, izan ere, erosketa hori Gobernuak eskatuta egin zuen.

- Parte hartutako enpresetan egin diren finantza-inbertsioetatik –bai kapitalekoetan bai maillekuak ematekoetan– berrikusi ditugun guztiak Sodenako Administrazio Kontseiluak onetsi ditu.

- Gure iritziz, Sodenaren honako jarduketak, Administrazio Kontseiluak onetsitakoak, zalan-tzagarriak dira:

a) Sodena Parquenas merkataritzaren enpresako bazkide bakarra izatea finantza-laguntza ematen duena –kapitalaren ehuneko 45a dauka, 2001ean 4.050.000 euroan eskuratua, 10 urterako–. Enpresa horretako administratzaile bakarra da 2005etik.

b) 2004an, Sodenak finantza-entitate bati mailegu bat hartzea, hain zuzen ere finantza-entitate horrek Noi Navarrari emandakoa, 809.969 eurokoa. Sodenak ez zuen ez abalatu, ez bermatu mailegu hori.

c) 2013ko abenduaren 31n, Sodenak Caviar Per Sé, S.L.: enpresako kapitalaren ehuneko 80ko partaidetza izatea. Izan ere, egoera hori etorri da enpresa horri emandako maileguen kapitalizaziotik, nahiz eta horrek izaera iragankorra izan eta VI.l atalean aipatutakoaren arabera justifikatzeko modukoa izan.

- Egiaztatu dugu ezen, orokorrean, Sodenari aurkeztutako inbertsio proiektuak, azken horrek onartu eta finantzaturitakoak, negozio-planak zeuzkatela oinarri, eta negozio plan horiek proiektuaren bideragarritasuna eta errentagarritasuna justifikatzen zutela. Halaber, arrisku handiagoko negozioen aurrean, Sodenak azterlan osagarriak enkargatu zituen, eta azterlan horiek alderatu zituen enpresak emandako informazioarekin.

Alabaina, parte hartutako 37 enpresetatik 26tan, negozio planak ez ziren bete –kasu batzuetan, krisi ekonomikoak 2008ko ekitaldian eta hurrengoetan enpresen finantza-egoeran izan zuen eragin negatiboarengatik–.

Parte hartutako enpresen aurkako finantza-egoeren aurrean, orokorrean, Sodenak enpresetan jarraitu zuen –zeren eta beste aukera baitzen kasuko enpresatik ateratzea eta, orduan, batzuetan parte hartutako sozietatea desegin eta likidatuko zen–, eta parte hartutako enpresako bazkide baten gisara erantzun zien haren finantza-premiei. Jasota dago agerikoa dela Sodenak lan aktiboa egin duela finantzaturitako inbertsio-proiektuekin aurrera jarraitzeko eta haiek garatzeko konponbideak bilatzeko. Hala eta guztiz ere, sozietate publikoaren jarduketak horiek ez zuten beti aurrera egin eta, batzuetan, ez zuten bailio izan saihesteko parte hartutako sozietatea likida zedin, Sodenak jarraitako finantzaketa galduta edo bere partaidetza espero zenaren azpitik salduta.

Parquenas eta Caviar Per Sé enpresetan, Sodenaren finantza-laguntza enpresan zeukan partaidetzaren arabera zegokiona baino handiagoa izan zen, zerengatik gainerako bazkideek –esate baterako Parquenasaren kasuan–, ez baitzuten finantza-baliabiderik jarri. Caviar Per Sé enpresaren kasuan, bazkideetako bakarrak jarri zituen enpresan zeukan partaidetzaren araberrako baliabideak.

Halaber, Natural Climate Systems enpresa publikoaren kasuan –Sodena, S.L.k haren ehuneko 31,5 zeukan eta Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.k, berriz, ehuneko 34,5–, 2013an soilik bi bazkide horiek, bazkide publikoek, 600.000 euro jarri zituzten gutzira galerak berdintzeko.

V. ONDORIO OROKORRAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan txosteneko iritzi-atalean laburbildutako ondorioak garatzen ditugu, eta Sodenaren funts berekiek 2002tik 2013ra izan duten bilakaera aztertzen da.

V.1. KOTIZATU GABEKO ENPRESETAN EGINDAKO FINANTZA-ERAGIKETAK

• Honakoak dira Sodenaren finantza-inbertsioak, kotizazio ofizialik gabeko merkataritza-enpresen kapitalean parte hartzeak, eta 2002tik 2013ra bitartean partaidetza izandako enpresa-kopurua:

Urtea	Finantza-inbertsioak		
	Zenbatekoa	Enpresa-kopurua	Proiektu berrien kopurua
2002	4.823.116	4	4
2003	49.831.476	12	11
2004	8.500.366	8	5
2005	91.200	1	0
2006	4.124.923	9	7
2007	11.347.606	18	13
2008	21.478.850	17	7
2009	13.598.790	14	6
2010	1.679.922	11	2
2011	8.600.990	18	7
2012	2.973.851	11	2
2013	23.081.284	14	5
Guztira	150.132.374		69

2004tik 2013ra bitartean, Sodenak 906 inbertsio-proiektu aztertu zituen guztira; horietatik, 54tan inbertitu zuen.

2012tik 2013ra Sodenak aztertutako proiektuen kopuruak nabarmen egin zuen gora, aurreko ekitaldiko kopuruekin alderatuta. Horren arrazoia da 2012an bere gain hartu zuela Start Up Capital Navarraren kudeaketa, ekintzaileei hazi-kapitalaren bitartez inbertsioa errazteko eta laguntzeko tresna gisa, eta jardueraren jarraipen eta kontrolerako barne prozedura berri bat ezarri zela; horren arabera, taldeko kide guztiek egindako hartu-emanen dokumentazioa sartu da. Bi inguruabar horiek direla eta, Sodenak enpresa-proiektuak artatu ditu etapa askoz ere goiztiaragoetan eta heldutasun gradu txikiagoarekin, enpresen sorreraren hasierako faseetan, non eskaria handia baita.

2002tik 2013ra inbertsioa egin zen enpresen zerrenda txosten honetako 1. eranskinean ageri dena da.

- Honakoak izan ziren kotizatu gabeko enpresetako kapitalaren desinbertsioak eta 2002tik 2013ra bitarteko ekitaldi bakoitzean lortutako emaitzak:

Urtea	Finantza-desinbertsioak		Desinbertsioaren emaitzak (salmenta prezio ken kostua)
	Inbertitutako kopurua	Enpresa-kopurua	
2002	895.418	1	2.857.256
2003	1.791.861	2	78.304.340
2004	48.118.315	4	273.663.371
2005	12.134.652	6	-7.604.995
2006	66.111	1	-12.021
2007	1.260.139	3	-362.415
2008	5.600.038	7	5.560.699
2009	1.531.525	3	-376.154
2010	499.953	1	-499.864
2011	7.961.602	8	2.794.103
2012	4.239.125	7	404.605
2013	13.417.439	8	-12.410.257
Guztira	97.516.178		342.318.668

Txosten honetako 3. eranskinean ageri dena da 2002tik 2013ra inbertsioa egin zen enpresen zerrenda.

- 2013ko abenduaren 31n, Sodenak enpresetan egindako finantza-inbertsioek 305,99 milioi euro egiten zuten; horien kontabilitate-balio garbia, berriz, 164,18 milioi eurokoa zen. Honakoei zegozkien:

	Enpresa-kopurua	Saldoa 2013-12-31n	Andeatzea	Balio garbia 2013/12/31n
Kotizatu gabeko enpresetan izandako partaidetza	51	94.379.934	63.914.528	30.465.406
Kotizatutako enpresetan izandako partaidetza	1	211.610.034	77.892.259	133.717.775
Guztira	52	305.989.968	141.806.787	164.183.181

Txosten honetako 4. eranskinean adierazten da, enpresa bakoitzarentzat, inbertsioaren kostua, haren balio garbia eta Sodena, S.L.k hartan zuen partaidetzaren ehunekoa.

Taldeko eta talde anitzeko enpresen eta enpresa elkartuen ondarean egindako inbertsioak balioesten dira daukaten kostu historikoaren arabera, andeatzearen ondoriozko balioespen-zuzenketak kenduta; berdin jokatzeko da Sodena kontrol edo eragin adierazgarri ez duen kotizatu gabeko enpresen partaidetzekin.

Iberdrolaren akzioak salmentarako baliagarri diren aktibo finantzario moduan sailkatuta daude eta erregistratzen dira, horri buruz kontabilitate-araudiak ezarri bezala, beren arrazoizko balioaren arabera; balio hori, izan ere, bat dator ekitaldi bakoitzeko itxierako kotizazio-prezioarekin. Arrazoizko balioan izaten diren aldaketak ondare garbian erregistratzen dira zuzenean, aktiboari baja ematen zaion edo andeatzen den arte, eta orduan, ondare garbian aitortutako zenbatekoa galeren eta irabazien kontuari egozten zaio.

Merkatu antolatuetan kotizatzen duten eta salmentarako baliagarri dauden finantza-aktiboaren moduan sailkatutako ondare-tresnetarako –horixe da Iberdrolaren akzioen kasua– kontabilitate-araudiak ezarritako irizpidearen arabera, Sodena jotzen du akzioak andeatu direla urte eta erdiz modu jarraituan behera egin dutenean edo kotizazioan ehuneko 40 galdu dutenean, eta andeatze hori galeren eta irabazien kontuari egozten dizkio.

- 2002tik 2013ra kotizatu gabekoak izan eta parte hartu diren enpresei –txosten honetako 2. eranskinean zehazten dira– emandako maileguek 109.272.532 euro egin zuten. Hona haien xehapena:

Urtea	Zenbatekoa
2002	6.910.679
2003	5.667.173
2004	5.373.352
2005	11.095.421
2006	12.911.140
2007	13.989.021
2008	8.747.393
2009	12.403.498
2010	9.157.447
2011	9.863.982
2012	7.432.389
2013	5.721.037
Guztira	109.272.532

Maileguen guztizko zenbatekotik, 57.427.150 euro Parquenasari eman zitzaizkion (diruzaintzako 2.000.000 euro itzuli dira) eta 3.487.898 euro, berriz, Noi Navarra enpresari emandako maileguei dagozkie; izan ere, mailegu horiek Sodenak zenbait finantza-entitateri hartu zizkien 2004an eta 2005ean, eta horietan 809.969 euro ez zeuden ez abalaturik, ez bermaturik.

Honakoa da Sodenak eman zituen maileguen 2013ko abenduaren 31ko egoera:

Emandako maileguak	Zenbatekoa
Kapitalizatuak	27.113.005
Berreskuratuak	14.386.915
Berreskuratu gabeak	6.018.680
Kobratzeko daudenak	61.753.932
Guztira	109.272.532

2013ko abenduaren 31n, parte hartutako enpresek Sodenarekin zeukaten zorra –emandako maileguen eta sortutako interesen ondoriozkoa– 70.853.142 eurokoa da. Kopuru horretatik, Sodena, S.L.k jotzen du 39.417.763 euro andeatuta daudela.

	Kreditua	Korrituak	Andeatzea	Balio garbia
Epe luzea	68.555.488	1.088.378	38.821.942	30.821.924
Epe laburra	1.125.759	83.517	595.821	613.455
Guztira	69.681.247 ⁽¹⁾	1.171.895	39.417.763	31.435.379

(1) Kobratzeko dagoen zenbateko horretan sartzen dira Nafinco, S.A.k emandako maileguak, zeinak bere egin baitzituen Sodena, S.L.k bategitearen ondoren.

V.2. IBERDROLA, S.A.n DUEN PARTAIDETZA

2005ean, Sodena, S.A.k Iberdrolaren 9.015.492 akzio eskuratu zituen, 19,25 euroko prezioan. Guztizko kostua 173.556.238 eurokoa izan zen. Eskuraketa horrekin, Sodena, S.A.k Iberdrolaren kapital sozialaren ehuneko bateko partaidetza zuen. Ehuneko hori txikiagoa da Sodenaren estatuetan sozietateen kapitalean parte hartzeko ezarrita dagoen ehuneko bosta baino.

Eragiketa finantzatu zen Corporación Hidroeléctrica de Navarraren salmenetatik lortutako diruarekin.

Sodenak 2005ean eta 2007ko maiatzera arte akzioen arriskua estaltzeko eragiketa bat itundu zuen. Eragiketa horrek 90.956.308 euroko gastua ekarri zion 2007an, finantza-entitate batekin.

2007ko urrian, Iberdrolak akzioen bikoizketa (*split*) gauzatu zuen, ondoko proportzioan: une hartako titulu bakoitzarengatik lau titulu berri. Horrekin, balio nominala laurdenera jaitsi zuen. Horrenbestez, Sodenak Iberdrolaren 36.061.968 akzio eskuratu zituen, 0,75 euroko balio nominalarekin.

2008an, Sodena, S.A.k kapital soziala jaitsi zuen eta Nafarroako Aurrezki Kutxari –Sodenaren kapitalaren ehuneko 20 zeukan akzioduna baitzen– Iberdrolaren 7.212.394 akzio eskuratu zituen, 10,04 euroko kotizazio-prezioan, bai eta haiei lotutako 20.636.460 euroko zorra ere, akzioen estalduraren ordainketari zegokiona. Horrenbestez, 2008tik aurrera, Sodenak Iberdrolaren 28.849.574 akzio zeuzkan.

Hurrengo taulan jasotzen da akzioen prezioaren bilakaera, bai eta aurreko lerrokadetan deskribatutako eragiketak ere.

Urtea	Akzio kopurua	Erosketaren kostua, guztira	Akzio bakoitzeko kostua	Asegurua	Erosketaren guztizko kostua, gehi aseguruia	Erosketaren kostua, gehi akzio bakoitzeko aseguruia	Akzio bakoitzaren merkatu-prezioa	Andeatzea	Dibidenduak
2005	9.015.492	173.556.238	19,25		173.556.238	19,25	23,09		3.985.594
2006	9.015.492	173.556.238	19,25		173.556.238	19,25	33,12		7.979.612
2007 ⁽¹⁾	36.061.968	173.556.238	4,81	90.956.308	264.512.546	7,33	10,40		13.730.594
2008 ⁽²⁾	28.849.574	138.844.989	4,81	18.191.263	211.610.034	7,33	6,54	22.933.820	8.626.023
2009	28.849.574	138.844.989	4,81		211.610.034	7,33	6,67	-3.750.445	9.433.811
2010	28.849.574	138.844.989	4,81		211.610.034	7,33	5,74	26.830.104	9.800.657
2011	28.849.574	138.844.989	4,81		211.610.034	7,33	4,84	25.993.466	9.588.123
2012	28.849.574	138.844.989	4,81		211.610.034	7,33	4,20	18.579.126	9.823.716
2013	28.849.574	138.844.989	4,81		211.610.034	7,33	4,63	-12.693.812	8.303.732
Guztira					211.610.034			77.892.259	81.271.862

(1) Iberdrolaren akzio batengatik lau akzioko *split*a

(2) Sodenaren kapitalaren murrizketa, Iberdrolaren akzioak eta estaldura-gastuarengatik haiei lotutako zorra Nafarroako Kutxari emanda.

Horrenbestez, 2013ko abenduaren 31n, Sodenak Iberdrolaren 28.849.574 akzio zeuzkan, bakoitza 4,81 euroan erosita –7,33 euroan, estalduraren gastua gehituta–, eta haien merkatu-balioa 4,63 eurokoa zen; guztira, 77,89 milioi euroko prezio galera zegoen, beraz.

Sodenak 2005etik 2013ra kobratutako dibidenduak 81,27 milioi eurokoak izan ziren.

2013ko abenduaren 31n, Iberdrolaren akzioak pignoratuta zeuden finantza-entitateengandik jasotako epe laburreko kredituen bermean, 165 milioi euroko mugarekin; 130 milioi euro zeuden erabilia.

2014ko martxoaren 31n, Gobernuak baimena eman zion Sodenari Iberdrolaren akzioak saltzeko. Ekitaldi horretan, Sodena, S.L.k 16.980.030 akzio saldu ditu, 89.092.151 euroko prezioan. Batez besteko prezioa, akzio bakoitzeko, 5,2469 eurokoa da.

Akzioen batez besteko kostua 7,335 eurokoa zen; horietatik, 4,813 euro hasierako erosketaren kostuari zegozkion, eta 2,522 euro, berriz, estaldura-gastuari.

Sodena, S.L.k salmentaren diru-sarrerak bideratu zituen zorra amortizatzerara.

V.3. SODENAREN FUNTS BEREKIEN BILAKAERA 2002TIK 2013RA

Sodenaren funts berekiek 2002tik 2013ra honako bilakaera izan dute:

	Euroak, milakotan					
	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Kapitala	18.223	18.223	18.223	18.223	18.223	18.223
Erreserbak	14.990	16.091	16.127	186.225	187.789	190.063
Ekitaldiko emaitza	1.101	70.035	250.099	1.564	2.274	591
Konturako dibidendua		-69.998	-80.002			
Funts berekiak, guztira	34.314	34.351	204.448	206.012	208.286	208.877

	Euroak, milakotan					
	2008	2009	2010	2011	2012	2013
<i>Fondo propioak:</i>						
Kapitala	14.944	14.944	14.944	62.578	62.578	62.578
Jaulkipen prima				81.692	81.692	81.692
Erreserbak	161.695	163.238	163.238	0	0	0
Aurreko ekitaldiko emaitza			-1.371		-53.410	-114.694
Bazkideen ekarpenak				11.735	19.219	19.219
Ekitaldiko emaitza	1.543	-1.371	-10.661	-53.410	-61.284	-14.249
<i>Balio-aldaketarengatiko doikuntzak</i>	-23.093	-19.738	-46.174	247	394	12.797
Ondare garbia	155.089	157.073	119.976	102.842	49.189	47.343

KAPITALA

2002tik 2007ra, Sodena, S.A.k 18.223.522 euroko kapitala zeukan, 303.220 akziotan – baikoitzak 60,1 euroko balioa zuen–.

2008an, Sodena, S.A.k kapitala 3.279.657 eurotan jaitsi zuen, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra, S.A.U. ren Enpresa Talde Korporatiboaren jabetzako akzio gehienak amortizatuz; horretarako, Iberdrolaren 7.212.394 akzio eman zituen, bai eta haiei lotutako 20.636.460 euroko zorra ere, haien estalduraren ordainketari zegoakiona.

2011n, Sodena, S.L. sozietate berria eratu zen, 62.577.800 euroko kapitalarekin. Honakoen bategitearen ondorioa zen sozietatea: “Navarra de Financiación y Control, S.A.U”, “Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.A.”, “Fondo Jóvenes Empresarios Navarros, S.A.U” eta “Navarra de Gestión para la Administración, S.A.U.”

Ondoren erakusten da Sodenaren kapitalaren osaketa eta jabeak 2002tik 2013ra.

Kapitala	2002-2007	2008-2009	2010	2011	2012-2013
Nafarroako Gobernua	% 65,42	% 79,78			
TME 2001 Corpcan, SL ⁽¹⁾	% 20				
Nafinco, S.A.	% 14,58	% 17,78	% 17,78		
Hiscan Patrimonio II, SL		% 2,44	% 2,44	% 1,94	
Corporación Empresarial Pública, SLU			% 79,78	% 98,06	% 98,06
Caixa Emprendedor XXI, SAU					% 1,94
Kapitala, guztira	18.223.522	14.943.865	14.493.865	62.577.800	62.577.800
Akzioen/partaidetzen kopurua	303.220	248.650	248.650	312.889	312.889
Balio nominala	60,1	60,1	60,1	200	200

(1) Akziodun bakarra Grupo Corporativo Empresarial de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra, S.A. zen.

Corporación Publika Empresarial de Navarra, S.L.U. sozietate publikoak, 2009an eratuak, 2011tik Sodena, S.L.ren kapitalaren ehuneko 98,06ko partaidetza du. Honakoak dira partaidetzaren gehiengoak daukan sozietateetan dituen eginkizunak, besteak beste: kudeaketa eta egoera finantzarioa ezagutzeari, parte hartutako sozietateari aholkua ematea eta haren kudeaketa tekniko-koa egitea.

EMAITZAK

Ekitaldian, zergak kenduta, izan den emaitzari dagokionez, honakoa nabarmendu behar dugu:

2003an eta 2004an, 70 eta 2050 milioi euroko emaitzak izan ziren, hurrenez hurren. Emaitza horiek zor zaizkio Corporación Energía Hidroeléctrica de Navarrako partaidetza saldu izanaren etekinari; guztira, 337,94 milioi euro.

Emaitza horien kargura, Sodena, S.A.k onetsi zuen akzio bakoitzeko 230,85 euroko dibidendua banatzea 2003an eta 263,86 euroko dibidendua, berriz, 2004an; hau da, 69.998.337 euro eta 80.007.629 euro ekitaldi bakoitzean, hurrenez hurren. 2004ko etekinaren gainerakoa erreserbetara aldatu zen, eta berdin egin zen Sodenak 2005etik 2008ra bitarteko ekitaldi bakoitzean lortu zituen etekinekin, urtean 0,6 eta 2,3 milioi bitartekoak izan zirenak.

2009tik aurrera, lehenengo ekitaldia izan baitzen 2002tik Sodenak emaitza negatiboa izan zuena, sozietate publikoak galerak izan zituen urtero; galera horiek kuantitatiboki handiak izan ziren 2011n eta 2012an, -53 eta -61 milioi euro, hurrenez hurren.

Galera horiek nagusiki zor zaizkie Iberdrolaren eta kotizatu gabeko parte hartutako enpresen akzioen zorroko kontabilitate-andeatzeari eta azkendutako Nafinco sozietateari emandako abal eta bermeengatik zuzkitutako hornikuntzei.

2011n eta 2012an, Iberdrolaren akzioen ekitaldiaren itxierako eta hasierako arrazoizko balioen artean zeuden alde negatiboak, zeinak aurreko urteetan ondare garbiaren kargura doitzen baitziren, emaitzei egotzi zitzaizkien, zeren eta Sodenak jo baitzuen, Kontabilitate Plan Orokorren irizpideen arabera, andeatzearen ebidentzia bat bazegoela, zeren eta akzioaren arrazoizko balioa erosketa-kostuaren azpitik egona baitzen 39 hilabetez jarraian.

2011ko ekitaldian, Nafinco eta NGAREN bategitearen emaitza gisa, bat egindako sozietateen ondarearengatik altak, 136.752.119 euro, jaulkipen-primarengatik erreserbaren kontuari egotzi zitzaizkion, eta 46 milioi euro kendu ziren Iberdrolaren akzioek 2008ko ekitalditik izandako andeatzearengatik.

ONDARE GARBIA

Aurreko ataletan deskribatutako eragiketen ondorioz, Sodenaren ondare garbia 2002an eta 2003an 34 milioi eurokoa izatetik 2004tik 2007ra 204 eta 208 milioi artekoa izatera pasatu zen, eta 156 milioi euroraino murriztu zen 2008an eta 2009an eta 120 milioi euroraino, berriz, 2010ean, nagusiki Iberdrolaren akzioen balio-galeraren ondorioz eta kapitala murriztearen ondorioz –partaidetzen gutxiengoa zeukan bazkidearen akzioen amortizazioaren bidez eta Iberdrolaren akzioen zati bat emanez–.

2011n, Iberdrolaren akzioen balio-galerak eta bat egindako sozietateek egindako doikuntzek eragin zuten funts berekiak 103 milioi euroraino gutxitzea. 2012an eta 2013an, ondare garbia 48 milioi euro ingurukoa zen, nagusiki 2012ko ekitaldian 61 milioi euroko galerak izan zirelako, enpresetako partaidetzetan eta emandako abaletan gertatutako andeatzearen ondorioz.

2011n eta 2012an, Enpresen Korporazioak 11,7 eta 7,5 milioi euro jarri zituen, hurrenez hurren, Sodena, S.L. sozietate berriaren galerak konpentsatzeko –azkendutako Nafincoren galeren ondorioz sortutakoak ziren haiek–.

V.4. GOMENDIOAK

Hona gomendatzen duguna:

- *Sodena, S.L. enpresa berriak, 2011n sortutakoak, kotizatu gabeko enpresen kapitalean parte hartzeko eragiketetan bete behar dituen mugak argitzea eta definitzea; besteak beste, izenpetutako kapitalaren ehunekoak, enpresan irauteko aldia eta Sodenak eragiketa horietara bideratzen dituen funts berekiak.*

- *Ganbera honek Iberdrolaren akzioak erosteari buruzko txostenean gomendatu zuen bezala, kotizazioa duten enpresetan inbertitzeko finantza-eragiketetarako baldintzak eta mugak arautu behar dira, eta jotzen da komenigarria dela Parlamentuari haiei buruz informatzea.*

- *Jarraitzea lehentasuna ematen sektore estrategikoetan edo lehentasunezkoetan –horietatik baitira Sodena, S.L.ren xedearen funtsa– kokatutako enpresa-proiektuetako inbertsioei.*

- *Bete ez diren negozio-planak ugari direla ikusita, inbertitzen den enpresen alderdi garrantzitsuei buruzko analisia eta ebaluazioa sendotzea, hartzen diren inbertsio-erabakiak plan sinetsuak eta errealistetan oinarritu daitezen.*

- *Parte hartutako enpresaren kapitalean duen partaidetzaren arabera finantza-babesa ematea, gainerako bazkideen finantzaketa bere gain hartu gabe.*

VI. PARTE HARTUTAKO ENPRESETATIK AZTERTU DIRENAK

Atal honetan, jarduera-sektoreen arabera eta hurrenkera kronologikoan aztertzen ditugu Sodenak 2002tik 2013ra egin zituen finantza-eragiketak, aztertu diren parte hartutako kotizatu gabeko enpresetako bakoitzarekin, bai eta sozietate publikoak inbertsioei ekiteko izan zituen arrazoi nagusiak ere.

Kotizatu gabeko 69 enpresetako kapitalean parte hartzeko guztira egindako 139,81 milioi euroko inbertsioetik, 37 enpresaren finantza-inbertsioak aztertu ditugu, zeinetan 108,63 milioi euro inbertitu baitziren 2002tik 2013ra.

VI.1. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREA

2002tik 2013ra, Sodenak nekazaritza-elikaduraren sektoreko zortzi enpresetan hartu zuen parte; guztira, 14.022.034 euroko finantza-inbertsioa egin zuen haietan. Hurrengo lau enpresetan izandako partaidetza aztertu dugu:

Nekazaritzako elikagaien sektorea	Xede soziala	Partaidetza- ren urtea	Kapitaleko inbertsioa	Desinbertsioaren urtea	Desinbertsioaren emaitza
Tutti Pasta	Pastazko plater ultraizoztuak	2004	530.493	2008	69.458
Ángel Garro	Gozogintza industrial	2007	1.304.011		
Piscifactoría Sierra Nevada, S.L.	Kabiar ekoizpena	2009	8.774.095		
Caviar del Reyno, S.L.	Kabiar ekoizpena	2009	14.535		

TUTTI PASTA, S.A.

1987an Nafarroan sortutako Tutti Pasta enpresaren xede soziala pastazko plater saltsadun ultraizoztuak egin eta merkaturatzea da.

2004an, Sodenak nekazaritza-elikagaien sektoreko enpresa horri laguntza eman zion bere zabaltze-prozesuan, 495.000 euroko ekarpenarekin. Haren kapital sozialaren ehuneko 15 erosi zuen eta 35.512 euroko partaidetza-mailegua eman zion, 2007an kapitalizatu zena.

Sodenak jo zuen enpresan inbertitzearen errentagarritasun finantzarioa ehuneko 28 ingurukoa zela, eta errentagarritasun fiskal eta estrategikoa zeukala, prozesuari eta produktuari zegokienez berritzailea zelako; gainera, nekazaritza-elikagaien sektorea dibertsifikatzen laguntzen zuen eta merkatua ezagutzen zuten profesionalek zuzendutako proiektua zen.

Sodenak konpromisoa hartu zuen bere inbertsioari gutxienez ere bost urtez eusteko, 2009ra arte, baina 2008an, orduko akziodunek hala nahi izan zutelako –bazkideen arteko hitzarmenaren arabera, Sodenari irteteko eska ziezaioketen, lau urte iragan ondoren–, Sodenak bere partaidetza Tutti Pastari saldu zion 599.950 euroan, 69.458 euroko etekina lortuta.

ÁNGEL GARRO, S.L.

2006an, gozogintza industrialaren fabrikazioan eta merkaturatzean diharduen Ángel Garro, S.L. enpresa hartzekodunen borondatezko konkurtsoan zegoen. Urte hartan, Sodenak kontratu bat sinatu zuen, eta haren bitartez konpromisoa hartu zuen inbertsio bat finantzatzeko, 150.000 euroko partaidetza-mailegu baten bitartez; inbertsio horrek, izan ere, aukera emanen zion enpresari IFS ziurtagiria (International Food Standard) berritzeko, hain zuzen ere nahitaezkoa zuena bideragarritasuna izateko hain beharrezko zuen Europako merkatura ateratzeko.

Enpresak negozio plan bat aurkeztu zuen, baina Sodenak ez zuen onartu, eta beste bat enargatu zuen.

2007an, Sodenak 1.000.000 euro eman zizkion enpresari, kapitalaren 44,94 erositik.

Sodena sartzeko arrazoiaren artean, nabarmentzekoa da inbertsioaren errentagarritasun soziala, zeren eta enpleguari eusten baitio oso garatuta ez dagoen Nafarroako eskualde batean. Jo zen inbertsioaren finantza-errentagarritasuna ehuneko 15,64koa dela.

Sodenak honako baldintzak ezarri zituen proiektua finantzatzeko: konkurtso-prozesuaren ebazpena; laneko berregituratzea eta egonkortasun sozialeko hitzarmen bat egitea, gutxienez ere 4 urtekoa, beste bazkide industrial bat sartzea eta sozietatean funtzionamendu-irizpide batzuk ezartzea alderdi teknikoetan, merkataritzakoetan eta abarrekoetan.

2008an, sozietateak jada hartzekodunen konkurtsoa gainditua zuen, eta Sodenari eskatu zion bazkide inbertsio-egile bat bila zezala; horretarako nekazaritza-elikagaien esparruko enpresa espezializatu bat kontratatu eta hari ordaindu zion. 2009an, Sodenak aurkeztutako txosten batean, agertzeraz ematen da salmentako aurreikuspen batzuk ez direla bete; enpresak finantza-beharrizan batzuk dituela hartutako konpromisoak betetzeko, eta zailtasunak daudela bazkide inbertsio-egile bat edo erosle bat aurkitzeko.

2010ean, sozietatearen desegitea deklaratu zen, eta aktiboak bazkide industrialari saldu zitzaizkion. Bazkide horrek 2013ra arte eutsi zion jarduerari, eta urte horretan enpresa likidatzen hasi zen.

Honakoak izan ziren Sodenak Ángel Garro enpresari egindako finantza-ekarpenak:

	2007	2009	2010	Guztira
Kapitalean parte hartzea	1.000.000	304.011		1.304.011
Partaidetza-maileguak	450.000 ⁽¹⁾	406.618		856.618
Bestelako mailegu eta kredituak		250.000	415.788	665.788
Hornitzaileen kredituen lagapena		102.642	536.765	639.407

(1) kapitalizatua.

2013ko abenduaren 31n, Ángel Garro enpresaren kapitaleko partaidetzak, 1.304 euroan erosiak, zeroko balio garbia dauka, eta gauza bera gertatzen da Sodenari zor dizkion maileguekin – 1.200.014 eurokoak–.

PISCIFACTORÍA SIERRA NEVADA S.L. ETA CAVIAR DEL REYNO, S.L.

2008an, Sodenak Piscifactoría Sierra Nevada, S.L. enpresan –egoitza soziala Granadan zuen– 4.985.465 euro inbertitu zituen, kapitalaren ehuneko 19,5 erosteko. Enpresaren xede soziala kabiarrak ekoiztea da.

Halaber, 2008an, 14.535 euro inbertitu zituen Caviar del Reyno, S.L. sozietatearen ehuneko 19,5 erosteko. Enpresa hori 2007an sortu zuten Nafarroan Sierra Nevada, S.L. enpresako bazkideek, eta kabiarraren ekoizpenean dihardu.

Piscifactoría Sierra Nevada, S.L. enpresan inbertitu baino lehen, Sodenak Due Diligence bat eskatu zuen, eta hura alderatu zuen enpresak emandako datuekin.

Piscifactoría Sierra Nevada enpresaren salmentei buruzko balorazio eta kalkuluek oinarri hartu zuten kabiarrak masaje-prozedura bat erabiliz ekoizteko jarduerak; prozedura horrekin animaliak hitzen ez zirenez, etorkizunari begira biomasa handiagoa sortzen zen eta, horrekin, produktio gaitasunak areagotzen ziren eta biomasa ukuiluan edukitzeko toki handiagoa behar zen. Horretarako, enpresaren asmoa zen jardueraren zati handi bat Esako arrain haztegiara eramatea, Esan behar ziren inbertsioak egitea eta 2008-2012 aldian nazioko eta nazioarteko merkatuan hedatzea. Jotzen zen produktua zailtasunik gabe salduko zela, Esako instalazioez baliatuta. Instalazio horiek, izan ere, une horretan jarduerarik gabe zeuden.

Sodenak, proiektua finantzatzeko orduan, aintzat hartu zuen, era berean, Landa Garapeneko Departamentuaren interesa eta enpresak nekazaritza-elikagaien sektorerako egiten zuen ekarpena, goi gastronomiarako kalitatezko produktu bat baitzen.

Jada 2008an, behin Sodenak enpresan parte hartuta, egiaztatu zen produktuak ez zuela merkatuan tokirik, zeren eta kabierra ateratzeko erabiltzen zen masaje-teknikak produktuari beste-lako testura eta zaporea ematen baitzizkion. Horrek berarekin zekarren aurkeztutako negozio plana ez betetzea, eta aurreikusitakoak baino emaitza askoz txikiagoak ekarri zizkion konpainiari

Egoera horren aurrean, beste negozio plan bat aurkeztu zen, non produkzio-sistemaren aldaketa jasotzen baita; izan ere, erabaki zen animalia hiltzea, masajearen teknika alde batera utzita, beste merkataritza-plan bat egitea eta konpainiak operatzeko beste modu bat ezartzea. Agertoki berri horrek eskatzen zuen enpresari finantza-laguntza gehigarri bat ematea. Hori baino lehen, sozietatea berriz ere baloratu zen, eta Sodenak partaidetzaren ehuneko 45 izatera pasa zen, inongo ekarpen gehigarririk gabe. Doikuntza hori egin ondoren, kalkulatu zen enpresak plan berriari ekiteko zeuzkan finantzaketa-beharrizan berriak lau milioi eurokoak zirela; horietatik, Sodenak ehuneko 88 jarriko zuen, zeren eta enpresaren ehuneko 45en partaidetza bai baitzuen ordu-rako.

Sodenak proiektua laguntzen jarraitu zuen, Esan kokatuta zegoelako eta negozio plan berriaren bideragarritasuna aintzat hartu zuelako –inbertsioaren finantza-errentagarritasuna ehuneko 19,85ekoa zela jotzen zen–.

Sodenak jo zuen enpresari beste finantza-laguntza bat emateko zegoen aukera bakarra izan-nen litzatekeela hartzekodunen konkurtso bat aurkeztea, zeinak nekez ekarriko zuen egindako inbertsioa berreskuratzea.

Sodenak hitzartu zuen berak kontrol efektiboa hartzea, eta agindu bat sinatu zen bazkide guz-tiekin negozio plan hori burutu zedin berrituko zuen bazkide berri bat sinatzeko; hartara, Sode-nak bere arriskua arinduko zuen.

2009an eta 2010ean ez ziren bete negozio plan berrian kalkulaturako aurreikuspenak; hori dela eta, ez ziren behar adina baliabide sortu, ez eta espero zen errentagarritasuna lortu ere. Ez dira bete, ezta ere, enplegua sortzeko aurreikuspenak.

Egoera horren aurrean eta finantza-baliabideak lortze aldera, enpresak 2011n Riofrón (Gra-nada) zeuzkan instalazioak saldu zituen eta jarduera Esako instalazioetan jarraitu zuen.

2013an, Sodenak inbertsio-egile industrial bat identifikatu zuen, Esan behar ziren inbertsio guztiak egiteko eta jarduerarekin jarraitzeko prest zegoena, beste izen sozial batekin, sozietatea-ren aktiboen salmenta-eragiketa errazte aldera, porrot egitetik hurbil baitzegoen.

Sodenak honako mailegu eta abalak eman zizkio Piscifactoría Sierra Nevada, S.L. enpresari (Caviar Per Sé, S.L. izena du 2012tik):

	2009	2010	2011	2012	Guztira
Partaidetza-maileguak	2.480.567	837.767			3.318.334
Mailegu sinplea		622.091	75.641	42.000	739.732
Abalak	225.000	225.000	134.100		

Mailegu sinpleak eta abalak itzuli egin ziren. 2013an, Sodenak partaidetza-maileguak amorti-zatu zituen eta haiei zegozkien interesak kobratu zituen, 469.436 euro, enpresaren kapital sozia-laren handitzea 3.787.770 euroko partaidetzak erosiz. Maileguen kapitalizazioak berarekin ekarri zuen Sodenak, aldi baterako, Caviar Per Sé, S.L. ren ehuneko 80 bere gain hartzea, enpresan gehiengoa zuten bazkideak salmenta-eragiketaren aurka jar zitezen saihesteko. Azkenean, 2014ko martxoan egin zen salmenta, eta gaur egun Esako jarduerari eta enpleguari eusten zaie.

2013ko abenduaren 31n, Sodenak Caviar Per Sé, S.L. ren kapitalaren ehuneko 80ko partaidetza dauka, eta Caviar del Reyno, S.L. ren ehuneko 19,50. Haietan, izan ere, honako zenbatekoak inbertitu ditu:

Enpresa	Inbertsioa 2013/12/31n	Balio garbia
Caviar Perse, S.L.	8.774.095	215.000
Caviar del Reyno, S.L. (ez du jarduerarik)	14.535	0

Epe laburrean, Sodenak espero du Caviar Perse konpainian egun daukan partaidetza gutxitzea eta bere partaidetza saltzea edo, bestela, berriz ere enpresaren bazkide minoritarioa izatea.

VI.2. BIOTEKNOLOGIAREN SEKTOREA

2002tik 2013ra Sodenak bioteknologiaren sektoreko 16 enpresatan hartu zuen parte, eta 25.974.637 euro inbertitu zituen haietan; Cima proiektuko enpresen aldi baterako batasunean, berriz, 14.840.246 euro jarri zituen. Era berean, epe horretan 2002a baino lehen inbertsioa egin-dako bi enpresetan zeukan partaidetza saldu zuen.

Honako hau da aztertu den lagina:

Bioteknologia	Xede soziala	Partaidetzaren urtea	Kapitalean egindako inbertsioa	I+G gastuen ekarpena, 2003-2013	Desinbertsioaren urtea	Desinbertsioaren emaitza
Cima proiektua:				14.840.246		
<ul style="list-style-type: none"> • Cima proiektuko enpresen aldi baterako batasuna • Biotech Navarra • Cima biomedikuntza proiektua • Digna Biotech 	Giza gaixotasunen inguruko diagnostiko goiztiarrari, prozedura terapeutikoei eta sendagai buruzko ikerketa eta ikerketaren emaitzen ustiaketa	2003 2003 2003	3.007 266.014 3.302.080		2004	-667
Smart Medical Group, S.L.	Produktu medikoak	2006	730.000			
Idifarma Desarrollo Farmacéutico, S.L.	I+G+b farmaziaren arloan	2006	1.808.580		2007(1)	0
Soisy Investment, S.L.	Osasuna eta bioteknologia	2007	730		2008	263
Fondo Ysios	Osasuna eta bioteknologia	2008	10.000.000		2011(1)	-54.970
Formune, S.L.	I+G, gai kimikoen fabrikazioa eta salmenta	2012	1.125.000			
Cinfa	Sendagai generikoak	1996	895.418		2002	2.857.256

(1) Desinbertsio partziala

CIMA PROIEKTUA

CIMA proiektuaren helburua da biomedikuntzaren arloko ikerketa egitea eta ikerketaren emaitzak ustiatzea. Nafarroako Unibertsitatearen Fundazioak (FUNA) eta Nafarroako Unibertsitate Klinikako ikerketa mediko aplikatuko Fundazioak garatzen dute proiektu hori, eta hura gauzatzeko ikerketa- eta garapen-zentroa (CIMA) sortu zen. Sustatzaileak Nafarroako Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitatea Klinikak dira.

Sodenak CIMA biomedikuntzako proiektua zela-eta baloratu zuen, funtsean, estrategikoki errentagarria izatea, eta hura kofinantzatu zuen honako hiru jarduketak hauen bitartez:

1. Ehuneko10eko partaidetza Cima proiektuko enpresen aldi baterako batasunean. 2013an sortu zen batasun hori, 15 bazkiderekin, 10 urteko epe baterako. Haren helburua zen giza gaixotasunak sendatzeko biologia zelularreko eta molekularreko azterlanetan oinarritutako metodo berriak ikertu eta garatzea.

Sodenak erabaki zuen proiekturako aurreikusita zegoen 152 milioi euroko guztizko kostutik ehuneko 10 jartzea 10 urterako, ikerketa-fasea finantzatzeko aldera: CIMA eraikitzea, langile gastuak, hornikuntzak eta proiektua gauzatzeko bestelako gastu orokorrak.

Enpresen aldi baterako batasunak, eratzeko unean, ikerketa-kontratu bat sinatu zuen FIMArekin, 10 urteko gehieneko iraupenarekin; haren arabera, FIMAk ikerketa garatzeko behar ziren giza-baliabideak eta baliabide materialak jarriko zuten, ordainsari baten truke.

Kontratu hau betetzean lortutako emaitza guztiak enpresen aldi baterako batasunarenak izanen dira, eta haren bazkideek haietan partaidetza izanen dute, hasiera batean ehuneko 100ean; alabaina, partaidetza hori ehuneko 80ra jaitsiko lortutako emaitzak ustiatzen dituen sozietateari emaitzak ematen zaizkion unean.

2007an, enpresen aldi baterako batasunaren ikerketen lehen emaitzak jakin ondoren, egiaztatu zen zalantza zegoela ikerketa proiektuen errentagarritasun ekonomikoari buruz. Hori dela eta, Sodenak 2007ko ekitaldiko aparteko emaitzei 3.069.458 euroko kopurua egotzi zien, 2003tik 2006ra hasitako ikerketetan egindako inbertsio garbiengatik, ibilgetu ez-material gisa aktibatutakoak.

Sodenak enpresen aldi baterako batasunaren eragiketak kontabilizatu zituen integrazio proportzionalaren bidezko bateratzearen irizpidearen arabera; hau da, kontabilitatera aldatu zuen dagokion ehuneko 10a –enpresen aldi baterako batasunean parte hartzearena– enpresen aldi baterako batasunaren aktibo, pasibo, gastu eta diru-sarrerak direla eta.

2007tik aurrera, Sodenak ekitaldiko gastu gisa kontabilizatu zituen enpresen aldi baterako batasunaren ikerketaren jarduerak.

2003tik 2013a Sodenak Cima proiektu enpresen aldi baterako batasunerako 14.840.246 euroko ekarpena egin zuen. 2013an, enpresen aldi baterako batasuna desegin eta likidatu zen.

Bioteknologia proiektuetan parte hartzeko xedez, Sodenak 2003an Biotech Navarra Investigación sozietatea eratu zuen, 3.007 euroko kapital sozialarekin. Hurrengo urtean desegin eta likidatu zen enpresa hori. Finantza-eragiketa horrek 667 euroko galerak ekarri zizkion Sodenari. 2004tik aurrera, Sodenak enpresen aldi baterako batasunaren partaidea izan zen, zuzeneko bazkide gisa.

2. 2003an parte hartu zuen Proyecto de Biomedicina Cima ustiaketa-sozietatean, ikerketetan lortutako emaitzak kudeatzeko. Sozietate horretako bazkideak enpresen aldi baterako batasuneko 15 bazkide finantzarioak eta bi fundazioak, FUNA eta FIMA, izan ziren.

3. 2003an, parte hartu zuen Digna Biotech, S.L. sozietatearen eraketan. Haren xede soziala da Cima proiektuko patenteak ustiatu eta garatzea.

Guztira, honakoak izan dira Sodenak 2003tik 2013ra Cima proiektua finantzatzeko jarri dituen baliabideak:

	CIMA proiektuko enpresen aldi baterako batasuna	Sociedad Proyecto Biomedicina Cima	Sociedad Digna Biotech
Ekarpena	14.840.246		
Kapital ekarpena		266.014	3.302.080
Maileguak		727.256	1.079.061

2013ko abenduaren 31n, Sodenak Digna Biotech-en kapitalaren ehuneko zortzi zuen, 3.297.880 euroko inbertsioarekin –1.107.319 euroan baloratua–, eta parte hartzen du, era berean, Proyecto Biomedicina Cima enpresaren ehuneko zortzian, andeatu gabe dagoen 266.014 euroko inbertsioarekin.

Digna Biotech enpresaren negozio planean aurreikusten zen zazpigarren urtetik (2010) aurrea itzulketa handiak egotea, halako moduz non enpresen aldi baterako batasuneko inbertsio-egileek 2011rako berreskuratuko baitzuten enpresen aldi baterako batasunean egindako inbertsio osoa. Aurreikuspen horiek ez dira bete.

Digna Biotech zenbait produktu garatu ditu, baina horietako bakarra ere ez da oraindik merkaturatu.

SMART MEDICAL GROUP, S.L (ALBYN MEDICAL).

Smart Medical Group S.L., Bartzelonan 2002an sortua, medikuntzarako ekipamendua eta kontsumo-gaiak diseinatu, fabrikatu eta merkaturatzen diharduen sozietate-talde baten burua da, urologian eta gastroenterologian espezializatua.

2006an, Sodenak, Nafarroan ikerketa medikoko proiektu bat garatzeko xedez eta I+G zentro bat eta sozietate-taldearen fabrika ezartzeko, enpresaren nazioarteratzeko etorkizuneko proiektu batzuen finantzaketan lagundu zuen, 730.000 euro inbertituz Smart Medical Group, S.L.n.

Sodenak inbertsio horretan baloratu zuen produktua mundu mailan merkaturatzeak eta 2006tik 2010era emaitzetan aurreikusitako hazkundeak ekar lezaketen errentagarritasun finantzario, fiskal eta estrategikoa baloratu zituen, medikuntzaren sektoreak Nafarroan zuen garrantzi handia zela eta.

Sodenak sozietateko kapitalean partaidetza handiena zuen bazkidea zen.

2007an, enpresa Nafarroan ezarri zen, 16 lanposturekin. Horietatik sei Bartzelonatik lekualdatutako langileak ziren.

Emaitzen aurreikuspenak ez ziren bete, eta 2009an enpresak berregituratze plan bat onetsi zuen, eta beste bi konpainiarekin bat egin zuen, Albyn Medical, S.L. sortuz.

Sodenak enpresa horretan irauteko zeukan konpromisoa, 2012ko apirilera arte adostutakoa, 2013ko martxora luzatu zen. Hala eta guztiz ere, 2013ko abenduaren 31n, Sodenak Albyn Medical, S.L. enpresaren kapitalaren ehuneko 42,6 eta eskubide ekonomikoen ehuneko 52 zeukan. Honakoak dira hartan egindako finantza-inbertsioak:

	Zenbatekoa	Interesak	Andeatzea	Balio garbia
Kapitalean parte hartzea	730.000		302.146	427.854
Partaidetza-maileguak	745.000	54.323	0	799.323

Sodena harremanetan jarri da zenbait inbertsio-egilerekin, bera ordeztuko duen bazkide bat bilatze aldera.

IDIFARMA DESARROLLO FARMACÉUTICO, S.L.

Enpresa nafar hori 2001ean sortu zen, farmazia-industriaren arloan ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-zerbitzuak emateko. Bazkide finantzarioetako bat Start UP sozietatea zen, zeinean Sodenak kapitalaren ehuneko 23,77 baitzeukan.

2006an, Idifarmak Sodenari eskatu zion Start Upen partaidetza erosi zezan, bere zabalkunde plana aurrera eramateko eta laguntza finantzarioa eman eta epe luzean iraunen duten bazkideak edukitzeko.

Honakoak izan ziren Sodenak Idifarmarekin egindako finantza-eragiketak:

	2006	2007	2008	2012	Guztira	Guztira 2013/12/31	Balio garbia
Kapitaleko partaidetzak	742.757	910.055		155.768	1.808.580	1.203.351	1.203.351
Maileguak ⁽¹⁾	304.750		155.768		460.518	0	

(1) kapitalizatuak

2006an, Sodenak Start Up Navarrak Idifarmaren kapitalean zeuzkan partaidetzak erosi zituen, 742.756,80 euroko prezioan. 2007an, 910.055 euroko sozietate-partaidetzak erosi zituen Idifarmaren kapitalaren zabalkuntzan, eta beste enpresa bati eskualdatu zion, erosketa-kostuaren prezio berean, 605.229 euroko prezioan eskuratutako partaidetzak.

Sodenak Idifarman geratzeko konpromisoa 6 urtean finkatu zen, 2012ra arte, baina gero iraupen-aldi hori luzatu zen. 2013ko abenduaren 31n, Sodenak Idifarmaren kapitalaren ehuneko 15,58 zeukan.

FONDO YSIOS BIOFUND I FCR Y SOISY INVESTMENT, S.L.

Fondo Ysios bioteknologian espezializatuta dago, hain zuzen giza osasunaren esparrurako berrikuntzak garatzeko xedea duten enpresetan, eta sektoreko izen handiko adituek kudeatzen dute, arrisku kapitalean eta bioteknologiako enpresen sorreran eta kudeaketan esperientzia handia dutenak. Sodenak jo zuen ehuneko 20tik gorako errentagarritasun finantzarioa izanzen zuela erkidegorako, bai eta errentagarritasun estrategikoa ere, aukeren garapenaren ikuspuntutik.

Funtsa 2008an eratu zen, batez besteko 65 milioi euroko ondare konprometituarekin. Ondare horren ehuneko 70, gutxienez, Espainian inbertituko zuen, eta ehuneko 30, berriz, Europako gainerako herrialdeetan, 10 urteko epean. Epe hori beste bi urtez luza liteke, proiektuen garapenaren arabera.

Sodenak funtsaren ehuneko 14,45eko partaidetza dauka, 10.000.000 euroko ekarpenaren konpromisoarekin. Funtseko Ikuskapen Batzordeko kidea da.

2013ko abenduaren 31n, funtsak 9.226.677 euro ditu kontabilizatuta (2011n, partaidetzen itzulketa partzial bat egon zen); horietatik, 5.809.266 ordaindu dira. Balio garbia, berriz, 6.801.771 eurokoa da.

Sodenak 1.217.916 euroko dibidenduak kobratu ditu.

Ysios funtsean parte hartu baino lehen, 2007an funtsa sustatzen zuen enpresako bazkideek interesa zuten Espainian bioteknologiaren arloko erreferentea izan zitekeen enpresa batean parte hartzeko, baina partaidetza hori ezin zenez bideratu funtsa oraindik eratu gabe eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalen izena eman gabe zegoelako, Soisy sozietatea eratu zen bioteknologiako enpresan parte hartzeko xedez. Soisyren egoitza Madrilen zegoen.

2007an, Sodenak Soisyren partaidetzak erosi zituen, 730 euroan, eta 944.500 euroko mailegua eman zion. 2008an, sozietatea desegin eta likidatu zen, eta Sodenak emandako mailegua kitatu zuen, 55.113 euroko interes garbiak kobratuta.

FORMUNE, S.L.

Formune, S.L. enpresa eratu zen EDA plataformaren ikerketa proiektua gauzatzeko. Proiektua txerto terapeutiko eta profilaktikoak garatzeko teknologiaren arlokoa zen. Guztira aurreikusitako kostua 12,5 milioi eurokoa zen, eta bi etapatan garatuko zen.

Inbertsioaren ardatza CIMAtik heldutako teknologia zen, hastapeneko fasetan zegoen teknologia hain zuzen. Hori dela eta, Digna Biotech enpresak, zeinean Sodenak partaidetza baitzuen, giza baliabideak falta zituenez eta garapenak kostu handia zuenez, hura kanpoan kontratatu zuen spin-off baten bitartez (enpresa batetik beste bat jaiotzea).

Horri dagokionez, Digna Biotechek Formune S.L. konpainia sortu zuen, 3.000 euroko kapitalarekin. 2012an, 1.125.000 euro inbertitu zituen kapital-handitze batean, eta proiektua finantzatzeko inbertsio-egilerik ez zegoenez, Sodenak erabaki zuen ekarpena zela-eta hasieran egin zuen proposamena, 1.166.000 eurokoa, 1.800.000 eurora arte handitzea, eta Formune, S.L.ren kapitalaren ehuneko 23ko partaidetza izatetik ehuneko 36ko partaidetza izatera pasatzea.

Sodenak jo zuen inbertsio hori aukera interesgarria zela ikuspuntu teknologiko eta merkataritzakotik, eta errentagarritasun finantzarioa ehuneko 30etik gorakoa izan zitekeela. Errentagarritasun hori estrategikoa izan liteke, Moderna Planen ahokatuta zegoelako, ekimen pribatuak hari ekiteko zailtasunak zeudelako eta 12 zuzeneko lanpostu eta 20 zeharkako lanpostu sortuko zirelako.

Inbertsio hori onetsi baino lehen, Sodenak baloratu zuen sektorerako plan estrategikoan ezarritako irizpideen arabera zela, eta ekitaldi horretan identifikatutako proiektuetako inbertsioa

heren bateraino finantzatzeko aukera biltzen duela. Horri dagokionez, egiaztatu zuen honako baldintzak betetzen zirela:

- Egiaztatzea analisiaren xede den teknologiak/molekulak aplikazio terapeutikorako funtsezkoak diren baldintzak betetzen dituela.
- Analisi zientifikoa baliozkotzea.
- DueDiligence bat egitea, non honakoak bilduko baitira: estali gabeko beharizan medikoen azterketa bat; industria farmazeutikoaren interesa; merkataritzaren eta merkatuaren arloko eskumenaren azterketa; I+G alderdian sakontzea; jabetza intelektualak; garapen planak, eta iritzi-liderren iritziak.
- Aholku Batzorde Zientifikoaren iritzien azterketa.
- Ikuskapen Batzordearen onspena.

Ez da onetsi lehen faseko bigarren kapital-handitzea, non Sodenak erabaki baitzuen 675.000 euro ordaintzea.

Formune, S.L. enpresak gaur egun lau langile dauzka.

CINFA

Cinfaren xede soziala sendagai generikoak garatu eta merkaturatzea da.

Sodenak enpresa horretan duen partaidetza 1996an hasi zen, eta haren helburua izan zen sendagai generikoen sektorean sartzen laguntzea. 2002. urtearen hasieran, Sodenak Cinfaren ehuneko 14,88 zeukan, 895.418 euroko prezioan erosia.

Sodena aurreikusita zegoen zortzi urteko epea amaitu baino bi urte lehenago atera zen Cinfatik, 2002an, eta horren arrazoia izan zen, batez ere, Cinfak Brasilen inbertsio ekonomiko handi bat egitea erabakia zuela, eta erabaki horrek eragin negatiboa izan zezakeela; izan ere, Sodenak jo zuen ordurako neurri handi batean beteta zegoela sozietate horretan sartzekoan izan zuen helburu estrategikoa.

Sodenak 2.857.256 euroko plusbalioa lortu zuen Cinfako partaidetzak saltzerakoan. Gainera, 1996tik 2002ra 829.397 euro kobratu zituen dibindendu kontzeptuan.

VI.3. ENERGIAREN ETA INGURUMENAREN SEKTOREA

2002tik 2013ra, Sodenak energiaren eta ingurumenaren sektoreko 12 enpresetan hartu zuen parte; guztira, 53.344.140 euroko inbertsioa egin zuen haietan. Era berean, epe horretan Gas Navarra enpresan zeukan partaidetza saldu zuen; hartan, izan ere, 2002a baino lehen eginak zituen inbertsioak.

Honako hau da aztertu den lagina:

Energia eta ingurumena	Xede soziala	Partaidetzaren urtea	Kapitaleko inbertsioa	Desinbertsioaren urtea	Desinbertsioaren emaitza
Corporación Energía Hidroeléctrica de Navarra	Energia berriztagarriak	1989	49.300.727	2003 eta 2004	337.943.374
Natural Climate Systems, S.A. (Miyabi)	Etxebizitza bioklimatikoak	2001	999.750		
Noi Navarra	Haize-sorgailu eolikoetarako palak	2002	2.529.540	2011	-2.351.378
Ecoenergía Navarra, S.L.	Minden arazketa	2003	1.713.750	2011	5.379.937
Ecoenergía Sist.Alternativos, S.L.	Mindak arazteko patentea eta horretarako teknologia garatzea	2003	928.942	2012 ⁽¹⁾	-100.000
Soluciones y Sistemas Solares, S.L.	Eguzki energia termikoa	2007	1.000.000		

(1) Desinbertsio partziala

CORPORACIÓN ENERGÍA HIDROELÉCTRICA DE NAVARRA, S.A.

Sodenak ehuneko 38ko partaidetza zuen Energía Hidroeléctrica de Navarra (EHN) enpresan kapitalean 1989tik.

2002an, Sodenak EHNren kapitalean parte hartzeari utzi zion, eta Corporación Energía Hidroeléctrica de Navarra enpresako kapitalaren ehuneko 53ko partaidetza eskuratu zuen. Enpresa hori data hartan sortu zuten EHNko Nafarroako akziodunek, aipatutako konpainiako ondarearen eszizio partzial baten bitartez, EHNk Nafarroan garatzen zuen jarduera integratzeko asmoz.

2003an, Eolo Proiektua sortu zen, zeinaren helburua baitzen CEHN bihurtzea energia berriztagarrien sektoreko enpresa kotizatu liderra. Erreferentziako bazkide berri bat sartzea aurreikus-ten zen. 2003ko bigarren erdian, beste bazkide bat sartu zen, bere akziodunei CEHNren ehuneko 50a erosita. Hartara, Sodenak CEHNren kapitaleko partaidetza jaitsi zuen ehuneko 39,58raino, eta CEHNn zeukan partaidetzaren ehuneko 13,40 saldu zuen, eta 78.905.378 euroko etekina lortu zuen -1.190.821 euroan eskuratu zuen eta 80.096.199 euroan saldu-.

Gero, urte berean, CEHNk kapitala handitu zuen eta Sodenak 44.608.412 euroko akzioak erosti zituen.

2004an, Sodenak erabaki zuen baimena ematea negoziatuz hasi eta bere akzio guztiak CEHNko bazkide berriari saltzeko, zeren eta jotzen baitzuen jada lortua zuela Nafarroan sektore indartsu bat finkatzea, nazio mailan eta nazioartean aitzindaria. Gainera, ekimen pribatuak toki sendo bat erdietsia zuen sektore horretan, eta aurreikusten zen kapital handia jarri beharko zela CEHNren nazioarteko zabalpeneko inbertsioei ekiteko.

2004ko amaieran, Sodenak CEHNn zeukan partaidetzaren gainerakoa saldu zuen (ehuneko 39,58). Guztira 48.109.906 euroko kostuarekin eskuratua zuen eta 307.147.901 euroan saldu zuen, 259.037.995 euroko etekina lortuta. Gainera, prezio gehigarri batzuk kobratu zituen CEHNren etekinak zirela-eta mugari batzuetara iritsi zelako, 2006an eta 2007an: 14.624.900 euro izan ziren, hain zuzen.

Sodenak CEHNn zeukan partaidetza salduz guztira lortu zuen etekina 352.568.274 eurokoa izan zen.

2004ko eskualdaketaren datan, Sodenak enpresari 2001ean emanak zizkion 22.838.458 euroko maileguak kitatu ziren. Haien truke, guztira 2.475.769 euro kobratu ziren, interes gordinen kontzeptuan.

1993tik 1999ra Sodenak guztira 4.225.115 euro jaso zituen EHNtik, dibidendu kontzeptuetan.

Jasota dago Nafarroako Gobernuak baimena eman zuela EHNko partaidetza, batetik 10 urteko mugatik gorakoa izan zedin, eta, bestetik, enpresa publikoak bere baliabideen ehuneko 15etik gora edukitzeko EHNn.

NATURAL CLIMATE SYSTEM, S.A.

Natural Climate Systems 2001ean sortu zen etxebizitza bioklimatikoaren garapen teknologikoaren arloan lan egiteko eta eraikinetako energia-opmitizazioari buruzko azterlanak egiteko. Vinsa sozietate publikoak eta EHNk ehuneko 34,50na zeukaten enpresan, eta Sodenak kapitalaren ehuneko bederatzi hartu zuen.

Honakoak izan ziren Sodenak Natural Climate Systemekin egin zituen finantza-eragiketak:

	2001	2003	2004	2010	2012	2013	Guztira, 2013/12/31n	Balio garbia
Kapitaleko partaidetzak	180.000	259.750	200.000			360.000	999.750	0
Maileguak				600.000		101.007	101.007	
Bazkideen ekarpenak					60.000	300.000	360.000	

2003an, Sodenak, Nafarroako Gobernuak Sarrigurenen sustatutako etxebizitza bioklimatikoak sustatzeko proiektuaren garapenean eta kontrolean parte hartze aldera, enpresan zuen partaidetza handitu zuen, kapitalaren ehuneko 21,5eraino, kapitalaren ehuneko 12,50 EHNri erosita. 2004an, Sodenak beste bazkide pribatu bati kapitalaren ehuneko 10eko partaidetza erosi zion, zeukan balio nominalaren truke.

2013ko abenduaren 31n, Sodenak Natural Climate Systemsen kapitalaren ehuneko 31,5eko partaidetza zeukan; haren kostu osoa 999.750 eurokoa zen (639.750, euro erosketari zegozkionak, gehi 2013an egindako 360.000 euroko ekarpenak, aurreko ekitaldietako galerak berdintzera bideratutakoak) eta zero ko balio garbia zuen.

Sodenak proiektu horretan parte hartu zuen arkitektura iraunkor ekologiko eta bioklimatikoaren arloan ikertu eta hura garatu eta sustatzea gai berritzailea zelako. Proiekturik aipagarriena Sarrigurengo berrikuntzaren kuboak deitutakoak ziren. 400 metro koadro inguruko 15 eraikin ziren, enpresa- eta merkataritza-jarduerak hartuko zituztenak. Horretarako, 2010ean enpresari 600.000 euroko mailegua eman zion, zeina 2012an itzuli baitzen.

2013ko abenduaren 31n, berrikuntzaren kuboaren proiektua, 1.044.032 euroan kontabilizatua, guztiz hornituta dago, zeren eta, Natural Climate Systemsen kontuetan jasotzen den bezala, une hauetan bideragarritasun eskasa baitu, batez ere higiezinaren sektorearen krisi larria dela eta.

2013aren itxieran, sozietateak ez zeukan langilerik eta ekitaldi horri buruzko auditoriak ohartzatzen zuen nabarmentzeko moduko zalantza zegoela Natural Climate Systemsek bere eragiketekin jarraitzeko zeukan gaitasunari buruz.

NOI NAVARRA, S.A.

Aerodinámica Tudela, S.A., Aertusa, enpresa haize-sorgailuetarako eolikoetarako fabrikazioan ziharduena, galerak zeuzkan eta porrot teknikoko egoeran zegoen. 2002an, akordio bat lortu zen Noi Taldearen –palen fabrikazioaren arloko bigarren handiena den talde alemaniarra–, Aertusaren bazkide maioritarioaren eta Sodenaren artean. Akordio horren ondorioz, Aertusaren kapitala handitu zen eta izen soziala Noi Navarra, S.A.ra aldatu zen.

Sodenak enpresaren kapitalaren ehuneko 41,48 erosi zuen, 2.529.540 euroan. Krisian inbertitzeko erabaki horren oinarria zen sektore eolikoak Nafarroarentzat daukan izaera estrategikoa, behin enpresan bazkide teknologiko bat, Noi taldea, sartu ondoren.

2003ko amaieran, sektore eolikoaren geratze orokorra zela eta, Noi taldeak jarduera txikia zeukan. Sodenak Noi Navarrak itundutako maileguak finkatu zituen eta *comfort letters* direlakoak jaulki zituen Noi Navarrarekin pasibo-eragiketak egin zituzten finantza-entitateetako batzuekin.

2004an, Sodenak ez zuen izenpetu Noi Navarraren kapitalaren handitzea. Hori dela eta, haren partaidetza ehuneko 41,48tik ehuneko 17,6a jaitsi zen, eta bere kontseilarien dimisioa aurkeztu zuen. Urte berean, Noi Navarrak porrota deklaratu zuen, Alemaniako enpresa matrizeak zeuzkan arazoak zirela eta, eta 2005ean, Sodenak hamaika ahalegin egin ondoren, Gamesa taldeko enpresa batek haren aktiboak erosi eta enpleguari eta jarduerari eutsi zien 2013ko abuztura arte.

2011n, Noi Navarra sozietatearen likidazioak 2.351.378 euroko galerak ekarri zizkion Sodenari.

Gainera, Sodenak 3.527.349 euro jasan zituen, Noik finantza-entitateekin itunduta zeuzkan finantza-errentamendu, mailegu eta kreditu eragiketetan Sodenak bere gain hartuak zituen abal, berme eta konpromisoengatik.

Gastu horien artean, 809.969 euroko kopurua zegoen, Sodenak finantza-entitate mailegu-emaileetako bati erositako Noiren mailegu bati zegokiona. Sodenak ez zuen mailegu hori ez abalatu, ez bermatu. Horri dagokionez, Sodenaren Administrazio Kontseiluak 2005eko abenduan erabaki zuen akordio bat ixtea finantza-entitateak Noi Navarrari emandako maileguarengatik jasandako kaltea konpentsatzeko, halako moduz non bere kokapena merkataritza-enpresa horren bermeak lortu zituzten gainerako finantza-entitateen parean geratuko baitzen.

EKOENERGIA PROIEKTUA

Sodenak Ekonoenergia proiektua beste batzuekin batera finantzatu zuen. Haren xedea zen Artaxoako gas naturalaren bidezko kogenerazio elektririkoko planta batean minden arazketa egitea. Horretan, besteak beste, ingurumenaren hobekuntzarako ekarpena hartu zen aintzat. Horri dagokionez, 2003an, hurrengo bi sozietateen eraketan parte hartu zuen:

1. Ecoenergía Navarra S.L.: Sodenak, hasiera batean, ehuneko 40an parte hartu zuen, eta gero, 2003ko ekitaldi beran, bere partaidetza handitu zuen, ehuneko 44,23koa izateraino. Enpresa horrek, zeinaren xede soziala baita Artaxoako plantaren ustiaketa energia eta, modu marjinalago batez, ongarrri organikoa sortuz, 2004. urteko bigarren erdialdean hasi zen lanean.

Sodenak 2006ko ekitaldian Ecoenergía Nabarraren 2004ko dibidenduak kobratu zituen, 530.760 eurokoak.

2011n, Ecoenergía Navarra, S.L.n zeukan 1.713.750 euroko partaidetza 7.093.687 euroan saldu zuen, 5.379.937 euroko etekina lortuta.

2. Ecoenergía Sistemas Alternativos, S.L. (ESA):

Enpresa hori 2003ko ekitaldian eratu zen, honako helburu hauekin: Ecoenergia Integrali minden arazketarako erositako teknologia ikertu eta garatzea (Ecoenergía Navarra, S.L.ren Artaxoako plantan aplikatua), teknologia hori merkaturatzea eta teknologia hori instalatuta dagoen planten mantentze teknikoarekin lotutako zerbitzuak ematea.

Sodenak hasiera batean 36.720 euro inbertitu zituen, eta horren bidez kapitalaren ehuneko 45 hartu zuen, hasiera batez bederatzi urtez geratzeko konpromisoarekin. Bazkide maioritarioa energia berriztagarrien arloko proiektuetan esperientzia zuen enpresa bat zen.

Ez dago jasota Ecoenergía Sistemas Alternativos enpresak negozio planik aurkeztu zuenik.

2006ko ekitaldira arte, Sozietateak ia soilik Ecoenergía Navarra, S.L.ren planta abian jartzeari laguntza ematen jardun zuen.

2006an, Sozietatea hasi zen konpainiaren jabetzakoa zen teknologia aplika zitekeen proiektuen bila hasi zien.

Araubide bereziko energia elektrikoaren ekoizpeneko jarduera arautzen duen maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretua onestearekin, eta ESA konpainiaren jabetzako teknologiarekin mindak tratatzeko planten bideragarritasuna bilatze aldera, sozietatearen jarduerari beste ikuspegi bat eman zitzaion: araubide bereziaren pan energia elektrikoa sortzeko proiektuak bilatu eta garatzea, haiek kogenerazioko planten garapenera bideratuz, ikuspuntu ekonomiko eta ingurumenekotik efizienteak izan zitezen, betiere Nafarroari lotutako industria ainguratzen eta enpleguari eusten lagunduz.

2008tik 2012ra doan aldiko urte bakoitzean, Sodenak finantza-baliabideak eman zizkion Ecoenergía Sistemas Alternativos, S.L.ri, aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko; horren helburua zen, hari laguntza ematea bezero berriak erakarpenean, garatutako teknologia ezartze aldera eta enpresen hondakinen tratamenduaren jarduerarako. Guztira, 2003an erositako partaidetza barne, Sodenak 928.942 euro eman zizkion enpresari.

2011n, konpainian gehiengoa zuen bazkideak adierazi zuen hartatik deslotu nahi zuela. Sodenak hasi zen ESarentzako beste bazkide baten bila. Finantza-gaitasuna edukitzaz gainera, kogenerazioaren sektorean esperientzia eduki behar zuen bazkide horrek.

2012an, konpainiaren ehuneko 55 saldu zen, 400.000 euroren truke, Espainian kogenerazioaren sektorean esperientzia zabala zeukan enpresa bati. Eragiketa horretan, Sodenak 100.000 euro galdu zituen. Halaber, Sodenak enpresa horren aldeko ehuneko 20 gehiagoko salmenta- aukera bat sinatu zuen.

2013ko abenduaren 31n, Sodenak Ecoenergía Sistemas Alternativos enpresaren kapitalaren ehuneko 45eko partaidetza izaten jarraitzen zuen, eta honakoa zen enpresa horretako finantza-inbertsioen egoera:

	Zenbatekoa	Interesak	Andeatzea	Balio garbia
Kapitalean parte hartzea	428.942		428.942	0
Emandako mailegua	848.138	15.951	406.558	457.531

Ecoenergía Sistemas Alternativos enpresak emaitza negatiboak izan zituen 2004tik aurrerako ekitaldi guztietan, eta funts bereki negatiboak, berriz, 2011tik aurrera, proiektuaren bideragarritasunean eragin zuten arau-aldaketan ondorioz.

SOLUCIONES Y SISTEMAS SOLARES, S.L.

Soluciones y Sistemas Solares, S.L. konpainia 2005ean hasi zen lanean Valentzian.

2007an, Sodenak 1.000.000 euroko inbertsioa egin zuen enpresa horren kapitalaren ehuneko 2,8 erosteko. Horren xedea zen eguzki energia termikoaren arloko ingeniaritza-sarea garatu eta instalatzeko proiektua finantzatzea. Gainera, sektorean espezializatutako nazioarteko inbertsio funts batek Sodenarekin batera inbertitu zuen, baldintza berdinetan. Bost eta sei urte bitarteko iraupen-konpromisoa hitzartu zen.

Sodenak honakoak baloratu zituen: proiektu horretarako inongo lehiarik ez egotea ez Nafarroan, ez Espainian, lehentasunezkoa zen sektore batean, nola baita energia berriztagarriena; profesional kualifikatuen ekarpena eta Nafarroako industriadako zekarren berrikuntza; errentagarritasun fiskala, Nafarroatik emanen zen zerbitzua baitzen; errentagarritasun finantzarioa (ehuneko 30eko barne-errendimenduaren tasa), eta batez besteko arriskua txikia izatea.

2007an, sozietateak bere helbide soziala Valentziatik Nafarroara aldatu zuen, eta 2011n izena aldatu zuen, honakoa hartuta: 3S Soluciones y Sistemas Energéticos, S.L.

2008an, enpresa ez zen espero zen merkatu-kuotara iritsi, eraikuntzaren sektorean eragiten hasi zen krisiaren ondorioz, eta enpresaren jardura eguzki energia fotovoltaikoaren esparrura eta eguzki-parkeen –bere parkeena zein besteren parkeena– mantentze-lanetara bideratu zuen. 2010ean, jardura horri buruzko araudia aldatzeak eragin kaltegarria izan zuen proiektuaren garapenean.

Araupetze berriak zekartzan perspektiba negatiboak zirela eta, enpresaren jardura birbiderratu zen, batez ere efizientzia energetikoaren auditoriaren esparrura.

2011n, bi bazkidek enpresa utzi zuten. Enpresaren egoeraren andeatzeak, zeina erregulazio elektriko berriaren ondorioa izan baitzen, eta auditoria energetikoen jardueratik heldutako diru-sarrerak nahikoak ez izateak eragin zuten 2013an sozietatea desegitea.

Horrenbestez, Sodenak enpresa horretan egindako 1.000.000 euroko ekarpena berreskuratzen ezinezkoa da, ustez.

VI.4. LOGISTIKA

2002tik 2013ra, Sodenak 617.800 euro inbertitu zituen logistikako bi enpresaren kapitalean. Horieta batean, 2001etik hartzen zuen parte, 601.035 euroko inbertsioarekin. Honakoak dira enpresak:

	Xede soziala	Partaidetza- ren urtea	Kapitaleko inbertsioa	Desinber- tsioaren urtea	Desinber- tsioaren emaitza
Profesional Buying&Logistics Services	Logistika katearen kudeaketa	2001	618.835	2007	-362.415
Sociedad Logística Alimentaria Navarra	Elikagai produktu izoztuen kudeaketa eta banaketa	2004	600.000		

PROFESIONAL BUYING & LOGISTICS SERVICES, S.A.

Profesional Buying & Logistics Services enpresaren xede soziala da bezeroen kate logistikoa eta erosketen/hornikuntzaren katea *outsourcing* delakoaren bidez (azpikontratazioa edo kanpo-kontratazioa) kudeatzea. Enpresak Madrilen du helbide sozial eta fiskala.

Enpresa horretan inbertitzeko orduan, Sodenak baloratu zuen enpresaren sustatzailea zen bazkide nafarraren profesionaltasuna, teknologikoki proiektu berritzailea izatea, Nafarroan sendo errotua egotea, eta Nafarcorekin hitzarmen bat egotea, zeinaren bitartez Nafarroan sal zitezkeen enpresaren zerbitzuak.

Hitzartu zen enpresak Nafarroara ekarri behar zuela bere helbide sozial eta fiskala, hitzarmen osagarrien egunetik hiru hilabeteko epean; izan ere, horrek errentagarritasun fiskala ematen zion inbertsioari.

2001ean, Sodenak akzioak erosi zituen aipatutako enpresaren kapital-handitzean, 601.035 euro ordainduta; kapitalaren ehuneko 10 zen hori. 7 urtez irauteko konpromiso bat hitzartu zen. 2003an, Sodenak euro nominal bateko 17.800 partaidetza erosi zituen, eta 20.118 euroko partaidetza-mailegua eman zion.

2007an, Sodenak erabaki zuen parte hartutako enpresatik irteteko unea aurreratzea – 2008rako zegoen aurreikusia– eta bere partaidetzak gainerako bazkideei saldu zizkien, 362.415 euroko galerarekin. Honakoak izan ziren Sodenak behar baino lehenago irteteko arrazoiak: negozio plana ez betetzea, bereziki salmentei zegokienez; jardueraren zati handi bat Nafarroan jartzeko ez lortzea, eta aktibatutako I+G gastuen kalkulaturako balioa txikia izatea. Desinbertsioa baino lehen, Sodenak enpresako gainerako bazkideekin adostu zuen helbide sozial eta fiskala Nafarroan geratzea hurrengo bost urteetan, bai eta Sodenari kalte-ordain bat ematea baldin eta enpresako bazkideetako batek bere partaidetzak hurrengo bi urteetan saltzen bazituen; halakorik ez zen gertatu, ordea.

Enpresak Nafarroan jarduten jarraitzen du, eta bederatzi langile dauzka foru erkidegoan.

SOCIEDAD LOGÍSTICA ALIMENTARIA NAVARRA, S.L. (SLAN S.L.)

SLAN, S.L. 1998an eratutako enpresa bat da, tenperatura kontrolatuko zerbitzu logistikoak ematen diharduena; honakoak, besteak beste: produktu izoztuen biltegiatzea, *picking* mailako zamen prestaketa, bulego egokituen eta garajeen alokairua eta hornidura elektrikorako sarbidea.

Sodenak sektoreko sustatzaileen esperientzia baloratu zuen, batetik; eta, bestetik, baloratu zuen zerbitzu horrek ez zuela lehiarik Nafarroan eta proiektua estrategikoki errentagarria zela, zeren eta nekazaritza-elikagaien industriarako ekarpen bat baitzen. Halaber, tenperatura kontrolatuko zerbitzu logistikorako zekarren berrikuntza ere baloratu zuen.

2004an, Sodenak erabaki zuen enpresaren zabaltze-proiektua finantzatzea eta haren kapital-handitze bat izenpetu zuen, 600.000 eurokoa, eta gehienez ere sei urtez irauteko konpromisoa adostu zuen, 2010era arte.

2013an, Sodenak enpresan jarraitzen zuen, kapitalaren ehuneko 18,17ko partaidetzarekin, 600.000 euroan eskuratu baitzuen; haren balio garbia, ordea, 426.910 eurokoa da. 2014ko martxoan, Sodenak bere partaidetza saldu zien gainerako bazkideei 363.327 euroren truke gehi prezio osagarri bat jasotzeko aukera, baldin eta bi urteko epean Sodenaren partaidetza erosi dutenek beren partaidetzak prezio handiago batean saltzen badituzte.

VI.5. SEKTORE TEKNOLOGIKOA

Sektore horretan, telekomunikazioetako, IKTen eta, oro har, teknologia berrien enpresak sarzzen dira. 2002tik 2013ra, Sodenak sektore teknologikoko 13 enpresaren kapitalean guztira 16.514.585 euro inbertitu zituen. Aztertutako lagina honako enpresei dagokie:

Sektore teknologikoa	Xede soziala	Partaidetza- ren urtea	Kapitaleko inbertsioa	Desinbertsi- oaren urtea	Desinbertsioaren emaitza
Navarra Verificaciones Legales	Zentro teknologikoak/metrologia	1989	66.111	2006	-12.021
Tenaria, S.A.	Zuntz optikoko kablea	1997	12.835.646	2005 eta 2008	-7.651.362
Cromasa	Albaitaritzarako tresnak	2004	457.088	2005 ⁽¹⁾	-26.682
Open Bravo, S.L.	Kudeaketa-sistemen garapena.	2006	1.598.406	2008 ⁽²⁾	0
Ingeniería Domótica, S.L.	Domotika eta ingeniariaritzaren produktuak	2006	335.288	2011	29.420

(1) Desinbertsio partziala

(2) Kapital-gutxitzea

NAVARRA VERIFICACIONES LEGALES

1989an, Cetenasa enpresa eratu zen, Nafarroako zentro teknologikoak batean biltzeko asmoz. Sodenak haren ehuneko 40ko partaidetza zuen, 48.081 euroko ekarpenarekin eta epe mugagabe batez.

2004ko ekitaldian, parte hartutako sozietatearen xede sozialaren ikuspegi berri baten ondorioz eta Nafarroako Gobernuak gomendatuta, haren akzioen berrantolaketa bat egin zen, eta izen soziala aldatu zuen: lehengo "Centros Tecnológicos de Navarra, S.A."ren ordez, "Navarra de Verificaciones Legales, S.A." izena jarri zitzaion. Sodenak kapitalaren ehuneko 45 erosi zuen.

2006an, Sodenak Navelsan zeuzkan akzioak Nafinco sozietate publikoari saldu zizkion, eta 12.021 euroko galera izan zuen.

TENARIA, S.A.

1997an, Sodenak erabaki zuen Retena, S.A.ren kapital sozialaren ehuneko zazpian parte hartzea. Sodenak jo zuen proiektuak interes estrategikoa eta lehentasunezkoa zuela Nafarroan informazioaren gizartea garatzeko, zeren eta telekomunikazioen sektoreko inbertsio bat baitzen, zuntz optikoko kablearen arloko enpresa operadore baten bitartezkoa.

2002tik 2008ra, Sodenak, akziodun gisa konpainiaren finantzaketa beharrezko erantzun ahal izateko, kapital-handitze batzuk erosi zituen, eta honako maileguak eman zizkion:

Data	Finantza-eragiketa	Kapitalean parte hartzea		Emandako maileguak	Interesak: Euribor+ 2
		Zenbatekoa	%		
1997					
1999	Kapitalean parte hartzea	5.133.545	10,38		
2001	Kapitala handitzea	1.718.513	12,03		Tenaria.
2002	Partaidetzarako mailegua			3.007.500	
	Mailegu sinplea			2.646.364	187.947
2003	Mailegu sinplea			2.671.013	147.543
	Partaidetzarako mailegua			2.976.042	
2004	Kapitala handitzea, partaidetza- maileguak kapitalizatuz	5.983.537	15,50		Tenaria.
	Aunaren akzioen trukea	12.835.646	0,066		Auna
2005	Auna-onoren akzioen salmenta	-11.092.257			
2006	France Telecomen akzioak	1.743.389		0,009	France Telecom
2008	France Telecomen akzioen salmenta	-1.743.389			

2000n, Retena, S.A Reterioja, S.A.rekin bate egin zuen, eta Tenaria, S.A. sortu zen. 2004an, Auna taldeak Tenaria xurgatu zuen, eta Sodena iragan zen Tenariako ehuneko 15,5 izatetik Aunaren ehuneko 0,066 izatera.

2005ean, Sodenak France Telecom Españari Aunako akzioen ehuneko 86 eskualdatu zizkion, eta eskualdaketa horretan 6.562.602 euro galdu zituen. 2008an, Sodenak France Telecom Españan zuen partaidetza saldu zuen, eta 1.088.760 euroko galera izan zuen.

Enpresa horietan parte hartzeak guztira 7.651.362 euroko galerak ekarri zizkion Sodenari.

Sodenak enpresari 11.300.919 euroko maileguak eman zizkion epe luzeko zein epe laburreko finantzaketa-beharretarako. Mailegu horiek guztiak 2004an itzuli ziren. Partaidetza-maileguak, 5.983.537 euro egiten zutenak, kapitalizazio bidez kitatu ziren. Mailegu sinpleek 335.490 euroko interesak sortu zituzten, euriborra gehi bi puntu tasa aplikatuta.

Sodenak Tenarian zeuzkan inbertsioek, 2002an eta 2003an, beraiekin ekarri zuten Sodenaren baliabide berekien ehuneko 15eko muga gainditzea. Hori dela eta, enpresa publikoak Nafarroako Gobernuaren baimena eskatu eta lortu zuen.

2006an eta 2007an, Sodenak France Telecom enpresako kapitalaren ehuneko 0,0009 zeukan: partaidetza hori Sodenaren estatutuetan eta hura sortzeko legean gutxieneko gisa ezarritako ehuneko 5eko partaidetzatik behera dago. Ez dago jasota Nafarroako Gobernuak muga hori aldatzeko baimenik eman zuenik.

CROMASA IDENTIFICACIÓN ELECTRÓNICA, S.A. (CROMASA)

Cromasa 2002an eratu zuten hiru bazkide nafarrek, abeltzaintzaren sektorerako albaitaritzatresnak eta -materialak fabrikatu eta banatzeko. Enpresaren jarduera bilakaera bat izan zuen, abereentzako banakako identifikazio elektronikorako elementuak diseinatu, muntatu eta merkaturatzeko esparrurantz, bai eta identifikatutako abereen kudeaketarako instalazio eta sistema informatikoen diseinu eta ezarpenaren esparrurantz ere.

Enpresa horretan egindako inbertsioan, Sodenak, besteak beste, honako ezaugarriak baloratu zituen; jardueraren xedearen berritasuna; sustatzaileek abeltzaintza sektorean zeukatzen esperientzia; Europako legedia, zeinak epe laburrean ekarriko baitzuen eskaria asko handitzea, Europako abere-azienaren banakako identifikazio elektronikoa exijitzen baitu; diziplina anitzeko lantalde bat eta I+G instalazioak edukitzea; errentagarritasun finantzario eta fiskala, zeren enpresaren helbi-dea Nafarroan baitago; eta teknologia berrien garapenaren arloko errentagarritasun estrategikoa.

Sodenak, Start Upekin batera, babes finantzarioa eman zuen Cromasaren negozioa bultzatzeko, eta 2004an enpresaren kapital-handitze bat izenpetu zuen, 349.722 eurokoa, eta hartan 10 urtez geratzeko konpromisoa hartu zuen.

2005ean akzioen salerosketarako sinatutako aukera-kontratuaren indarrez, enpresako bazkideak enpresarekin 2004ra arte besteren konturako langile gisako lan-lotura izateko baldintza beteta, Sodenak 2.522 akzio eman zizkien guztira euro bateko prezioan. Horrenbestez, Sodenak Cromasaren kapitalean zeukan partaidetza ehuneko 29,97koa izatetik ehuneko 26,84koa izatera pasatu zen.

2011tik sozietatea likidazio-konkurtsuan dago. 2013ko abenduaren 31n, Sodenak Cromasaren kapitalean zeukan ehuneko 26,87ko partaidetzaren kostua 457.087 eurokoa zen, eta haren balio garbia, berriz, zero eurokoa. Gainera, 2013ko abenduaren 31n, Cromasak Sodenasri 229.023 euro zor zizkion abalen bi exekuzio tarteko. Zor hori guztia hornituta dago.

OPEN BRAVO, S.L.

2001n, Nafarroan Tecnicia enpresa sortu zen, kudeaketa sistemak garatzeko xedez.

2004an, Tecnicia harremanetan jarri zen Sodenarekin, konpainia nazioarte mailan zabaltzeko laguntza finantzarioa lortze aldera. Proiektuaren tamaina eta arriskua ikusita, Sodenak honakoak kontratatu zituen: enpresaren plan estrategiko bat eta hazkunde-plan bat egitea; Due Diligence teknologiko, funtzional, negoziokoa eta legala egitea; eta konpainiaren finantzen egoera-orrien azterketa mugatu bat egitea. Sodenak proiektuaren errentagarritasuna aztertu eta ondorioztatu zuen inbertsioak errentagarritasun handia zuela, bai fiskala, bai estrategikoa. Azken hori inbertsio horren funtsezko zutabea zen, zeren eta tamaina handiko proiektu bat baitzen, Sodenaren helburu den sektore baten barruan, nola baita IKTen, eta enpresari gazte nafarrek sustatuta. Aurreikuspena zegoen honako enplegu kualifikatua sortzekoa: 150 profesional 7 urteko epean eta 250 baino gehiago 10 urteko epean.

2005ean, Sodenak, aurrez Nafarroako Gobernuak baimena emanda, erabaki zuen 225.000 euro jartzea Tecnicia enpresako (gero, Open Bravo, S.L. izanen zen) kapitalaren ehuneko 45 erosteko eta hartan bost urtez geratzeko.

Honakoak izan ziren Sodenak enpresa horrekin egindako finantza-eragiketak:

	2006	2007	2008	2009	2011	Guztira	Guztira 2013/12/31	Balio garbia
Kapitaleko partaidetzak	225.000		1.295.022		103.384	1.623.406	1.598.406	300.000
Maileguak	1.765.022	1.600.000			80.069	3.445.091	0	
Abalak				2.200.000			1.800.000	

Sodenak enpresa horretan geratzeko zeukan konpromisoa 2010ean amaitu zen, baina 2016ra arte luzatu zen. 2013ko abenduaren 31n, Sodenak haren kapitalaren ehuneko 0,06ko partaidetza zuen, eta partaidetza horren kostuak, 1.598.406 eurokoak, 300.000 euroko balio garbia zuen.

Enpresak ia 19 milioi euroko ekarpenak jaso ditu Fondos de Inversión Especializados delaktik, eta horiek aukera eman diote bere jarduerarekin jarraitzeko, izandako galerak gorabehera, eta 70 lanposturi eusteko (horietatik, 50 Nafarroan).

INGENIERÍA DOMÓTICA, S.L.

Ingeniería Domótica 1999an sortutako enpresa bat da, domotika zerbitzuak emateko eta ingeniari-tza proiektuak egiteko.

2006an, Sodenak, konpainiaren hedapena finantzatzeko, kapitalaren ehuneko 33,16a esku-ratu zuen 335.288 euro ordainduta. Jo zen proiektua lehiakorra zela, teknikoki bideragarria zela eta finantzarioki ongi egokitzen zela telekomunikazioen aroko zerbitzu-sektorean, horixe izaki Sodenaren lehentasunezko esparrua.

Sodenak enpresan zeukan partaidetza 2011n saldu zuen, eta 29.420 euroko etekina lortu zuen.

VI.6. TURISMOA

2002tik 2013ra, Sodenak 1.223.940 euro inbertitu zituen turismoarekin lotuako jardura zuten bi enpresaren kapitalean. Aztertutako laginak Parque de la Naturaleza, S.A. enpresa jasotzen du, zeinaren eraketan Sodenak parte hartu baitzuen 2001n, zeren eta 2003tik 2013ra Sodenak finantza-baliabide handiak jarri baitzituen enpresa horretan.

Turismoa	Xede soziala	Partaidetzaren urtea	Kapitaleko inbertsioa
Parque de la Naturaleza, S.A.	Naturaren parkea	2001	4.050.000
Fondo Desarrollo Turístico, S.A.	Hotel xarmagarrien sarea	2003	1.223.939

PARQUE DE LA NATURALEZA, S.A.

Arguedasko udalerrian naturaren parke bat egiteko proiektua Nafarroako Gobernuak hasi eta sustatu zuen, Nafarroako turismo-sektorea indartze aldera.

Proiektu hori ezartzeko –18,65 milioi euro aurreikusten ziren–, 2001ean Parque de la Naturaleza, S.A. enpresa eratu zen, bederatzita milioi euroko kapitalarekin. Sodenak haren eraketan parte hartu zuen beste lau bazkiderekin, 4.050.000 euro jarrita –kapitalaren ehuneko 45–, eta enpresan zortzi urtez, 2009ra arte, geratzeko konpromisoa sinatu zuen.

2004ko martxoan, parkea zabaldu zen, eta haren behin-behineko harrera formalizatu zen, non zenbait akats agerian geratu baitziren. 2005ean eta 2006an, 2,4 milioi euroko inbertsioak egin ziren eraikuntza-akatsak zuzentze aldera, bai eta parkearen eskaintza, diseinua eta efizientzia hobetzeko inbertsioak ere, 10,7 milioi euroko kostua izan zutenak.

Parkearen kostu osoa, 2002an hasi zenetik 2013ko abenduaren 31ra arte, 42.024.831 eurokoa izan zen.

2003tik 2013ra, Sodenak 59.477.150 euro jarri ditu guztira Parquenasa enpresarako, eta horretaz gainera, 2003an bi abal eman zizkion bi finantza-entitatetarako, 14 milioi euroko mugarekin, Parquenasak hartutako kreditu hauen berme gisa:

	Muga	Epea	Urteko amortizazioa
Kreditu-poliza	3.500.000	12 urte, 3 urteko gabealdia	388.889
Kreditu-poliza	10.500.000	10 urte 2005etik	1.050.000

Sodenak Parquenasako lau bazkideetatik birekin kontra-bermeko eskritura bat sinatu zuen, non ezarri baitzen bazkide sinatzaileek modu mankomunatuan bermatuko zutela, beren partaidetzaren proportzioan (ehuneko 30 bien artean) eta Sodenarekin solidarioki, azken horrek bere gain hartutako betebeharrak guztiak, bi finantza-entitateekiko kreditu-polizen fidatzaile gisa. Gainera, bi bazkideek Sodenaren aldeko bahitura eskubide erreal bat eratu zuten bakoitzak Parquenasaren kapital sozialean zeuzkan akzioen gainean.

Akordio horren bazkide sinatzaileetako bat izan zen parkea diseinatu eta planifikatu zuen bazkide teknologikoa, zeinak kapitalaren ehuneko 20 baitzuen; izan ere, bazkide horrek 2005ean borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu zuen eta hurrengo urtean likidazio fasea hasi zen.

2005eko martxoan, Sodenaren Administrazio Kontseiluari komunikatu zitzaion gainerako bazkideek –lauen artean kapitalaren ehuneko 55 zeukaten– ez zutela jarraituko proiektua finantzarioki laguntzen. 2005eko ekainean, Sodena izendatu zen Parquenasako administrazioa bakar, bost urteko eperako. Gaur egun, Sodenak jarraitzen du izaten Parquenasa enpresako administrazioa bakar eta bera finantzen duen bazkide bakarra. Mailegu bat eta ondoz ondoko urteko gehigarri batzuk eman izan dizkio; azken horiek 2005etik 2007ra 9,5 urtean 9,5 milioikoak izatetik 2012an eta 2013an 3,5 milioikoak izatera pasatu dira.

2001ean bazkideen artean sinatutako hitzarmenean, Parquenasan zortzi urtez –hau da, 2009ra arte– geratzeko konpromisoa finkatu zen. Hala eta guztiz ere, 2013an, Sodenak enpresan parte hartzen jarraitzen du.

2013ko abenduaren 31n, honakoak ziren Sodenak Parquenasarekin zeuzkan finantza-eragiketak:

Eragiketa	Zenbatekoa, guztira	Andeatzea	Balio garbia
Epe luzeko maileguak	55.427.150	32.212.835	23.214.315
Abalak	2.473.324		
Kapitalean parte hartzea	4.050.000	4.050.000	0
Guztira	61.950.474		

Emandako maileguk interesak sortuko dituzten merkatuko tasen arabera, Parquenasa sozietate errentagarritasunaren atalera iristen den ekitalditik aurrera. 2013ko abenduaren 31n, maileguen guztietatik 33.275.000 euro partaidetza-mailegutzat jotzen da. Parquenasak ez du inongo mailegurik amortizatu, nahiz eta guztira 19.170.820 euro egiten zuten bi maileguk 2011ko urtarrilaren 31n zuten mugaeguna.

Gainera, Sodenak 655.978 euro galdu zituen guztira 900.000 eurokoa zen mailegu batetik. Mailegu hori 2001ean eman zitzaion Parquenasaren diseinuaz eta kudeaketaz arduradun izan zen enpresari, zeina enpresako bazkidea baitzen.

Jo zen parkeko proiektua bere burua finantzatzeko modukoa zela eta ehuneko 13 inguruko errentagarritasuna izanen zuela.

Proiektuaren bideragarritasun azterlanean, aurreikusi zen parkera urtean 257.500 pertsona joanen zirela, agertoki normal baten arabera, 87 lanpostu sortuko zirela eta 1.430.565 euroko EBITDA (ustiaketa tartea) bat lortuko zela. Aurreikuspen horiek oso optimistak izan ziren. 2013an, parkeak 156.400 bisitari hartu zituen, urtean batez beste 50 langile enplegatu zituen eta EBITDA 1.876.630 euroan negatiboa izan zen.

Parquenasak 2013ko abenduaren 31n, 33 milioi euroko emaitza negatiboak zeuzkan metatuta, eta funts bereki negatiboak zituen.

Hala eta guztiz ere, Jarduera Ekonomikoa Sustatu eta Liberalizatzeko Presazko Neurriei buruzko uztailaren 7ko 7/1996 Errege Dekretu-legeko 20.d) artikuluari jarraituz –Merkataritzako legedia kontabilitate arloan aldatu eta nazioartean armonizatzen Europako Batasunaren araudiaren arabera egokitzeko uztailaren 16/2007 Legearen bidez aldatu zen gero–, partaidetza-maileguak sozietatearen ondare garbiaren zati bat dira, merkataritza-legedian aurreikusitako sozietateen kapitala murrizteari eta haiek likidatzeari dagokienez. Horrenbestez, Parquenas ez da sartzen aurreikusitako desegite kasuetan.

Parquenasaren partaidetzaz aparte, 2002an, Sodenak Arguedasko Udalaren enkargua jaso zuen, parkera iristeko azpiegitura-obren exekuzioa kudeatzeko. Obra horietarako 4.407.541 euroko kopurua aurreikusi zen, baina bigarren enkargu batez beste 1.433.329 euro gehitu zitzaizkion.

Arguedasko udalak Nafarroako Gobernutik 4.407.541 euroko diru-laguntza bat jaso zuen parkera iristeko obrak finantzatzeko; gainerakoa finantzatzeko, Sodenak honakoa erabaki zuen:

1. Arguedasko Udalarari erostea, 1.433.239 euroko prezioan, 97 urtez, herri-lur bezala desafektatu ondoren, 821.137 m² lagatzeko eskubidea; izan ere, lur hori beharrezkoa zen ostalaritza-instalazio bat eta golf zelai bat eraiki eta ustiatzeko.
2. Udalarari erostea, 13.200 euro ordainduta, udal jabetzako golf zelaiaren eta hotelaren proiektua.

Horri dagokionez, sodenak, 2003an, erabilera lagatzeko eskubidea erosi zuen, adostutako 1.433.239 euroko prezioan, baina Udalak ez ditu lursailak desafektatu. Egoera horren aurrean, Sodenak ezin du diru horren itzulketari eskatu, eta 2011tik aurrera sozietateak jo du eskubidearen kontabilitate-balioa andeatu dela. Itzultzeko kasuan, Udalak Sodenari errentako balioa ordain-

duko dio, hura gertatzen den unean. Sodenak, halaber, golf zelaia eta hotela egiteko proiektua erosi zuen. Proiektua ez da exekutatu.

Parkera iristeko azpiegitura-lanen guztizko kostua 5.643.931 eurokoa izan zen.

FONDO DE DESARROLLO TURÍSTICO, S.A. (FONDETURSA)

"Hotel xarmagarrien sarea" proiektuak helburu zuen sustapen pribatuko kalitate handiko azpiegitura berriak egin eta finkatzea, batez ere hirikoak ez diren eremuetan kokatuak. Sodenak proiektu horretan parte hartu zuen, zeren eta aintzat hartu baitzituen, besteak beste, sortutako enplegua eta zerbitzuen sektorea dibertsifikatzeko eta indartzeko egiten zuen ekarpena.

Erabaki zen sozietate bat sortzea, "Enpresak Sustatzeko Sozietatea" forma pean. Izan ere, funts bat izaki, enpresa kudeatzaile bat behar zuen, bai funtserako, bai hotelen sarerako.

Horretarako, Sodenak parte hartu zuen 2003an Fondo de Desarrollo Turístico, S.A. (Fondetursa) konpainiaren eraketan, turismorako, aisiarako eta kirolerako enpresak sustatzeko xede sozialarekin. Akzio guztien ehuneko 21,76 erosi zituen 1.202.024 euroko prezioan, 10 urtez geratzeko konpromisoarekin.

2003. urte berean, Navarra Excelencia Turística, S.L. enpresa kudeatzailea eratu zen. Enpresa hori ehuneko 100 Fondetursaren menpekoa zen. Sodenak bazkide bezala parte hartu zuen haren eraketan, eta euro bateko partaidetza bat erosi zuen; bi urte iraganda saldu zuen partaidetza hori.

10 urteko epean aurreikusita zegoen Nafarroako geografia osoan barna 7 edo 8 ostalaritza-establezimenduren sare bat sortzea. "San Virila" marka-irudia sortu zen sare horretarako.

2006an eta 2007an hiru hotel ireki ziren: Villademarcilla hotela, Lizarrako Tximista hotela eta Mirador de Ulzama hotela. Mirador de Ulzama hotelak hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu zuen 2012an; Villamarcilla hotelak 2014an eta Tximista hotelak zailtasunekin jarraitzen du lanean, hartzekodunen konkurtso bat gainditu ondoren.

2003an aurkeztutako negozio-planean, ehuneko 15eko errentagarritasun finantzarioa kalkulatu zen. Fondetursak galerak izan zituen urtero-urtero eratu zenetik 2011ra arte, eta galera horiek handiak izan ziren 2009an eta 2011n. Horren arrazoiak izan ziren hotelak eraikitzeke inbertsioetan izandako desbideratzeako, hoteletako bazkideen ezgaitasun finantzarioa eta krisiak okupazioetan izan duen eragin negatiboa.

Sodenak enpresan parte hartzen jarraitzen du, nahiz eta 10 urtez geratzeko konpromisoa adostu zen. 2013ko abenduaren 31n, Sodenak Fondetursaren kapitalaren ehuneko 37 dauka, 1.223.939 euroko guztizko inbertsioarekin; horren balio garbia zerokoa zen.

VI.7. BESTE JARDUERA SEKTORE BATZUK

2002tik 2013ra, Sodenak 30.851.633 euro inbertitu zituen Sodenaren arabera lehentasunezko inbertsioko sektoreetako jardueretan aritzen ez ziren 12 enpresaren kapitalean. Honako hau da aztertu den enpresen lagina:

Beste jarduera sektore batzuk	Xede soziala	Partaidetzaren urtea	Kapitaleko inbertsioa	Desinbertsioaren urtea	Desinbertsioaren emaitza
Compañía Tecnológica Corella Construcción	Hormigoizko aurrefabrikatuak	2000	2.907.092	2008	-2.159.655
Maderas Olazti	Kontratxapatuko ohola	2000	601.040	2003	-601.039
Lorpenak, S.L.	Kirolerako galtzerdi teknikoak	2002	810.576		
Finaves II, S.C.R.	IESEko ikasleen proiektuak finantzatzea	2003	272.730	2013	-216.145
Foro Europeo Formación Profesional	Zuzendaritzako kideei eta enpresaburuei prestakuntza ematea	2004	735.867	2013	-735.866
Epsilon 5	Aluminioa anodizatzea eta lakatzea	2006	1.084.070	2009	0
Pamplona Learning Spanish Institute, S.L.	Gaztelania irakatsi eta zabaltzea Nafarroan	2006	499.624	2012	-499.623
Estudios de Ingeniería Adaptada, S.L	Ebakitzeko eta soldatzeko makineria berezia	2007	6.060.831		
KYB Advanced Manufacturing Spain	Motelgailuak	2009	5.000.000		

COMPAÑÍA TECNOLÓGICA DE CORELLA (CTC) CONSTRUCCIÓN, S.A.

Compañía Tecnológica de Corella (CTC) Construcción, S.A. enpresa etxebizitzaren eraikuntzaren arloko hormigoizko aurrefabrikatuen esparruan dihardu.

2000. urtean, konpainiaren bilakaera txarra zela-eta eta jarduera hormigoizko aurrefabrikatuen merkatu tradizionalera (lehiakortasun handikoa) bidean berregituratzeko behararen aurrean, Sodenak kapitalaren ehuneko 18,29 erosi zuen 901.518 euroan. Inbertsio hori ez da sartzen Sodenaren jarduketaren lehentasunezko esparruetan.

Sodenak enpresari exijitu zion beste negozio plan bat aurkez zezan 2002tik 2005era bitarteko aldirako. Enpresaren kudeaketaren jarraipenerako batzorde bat sortu zen, hiru akziodunen kontseilariak osatua.

2004an, hiru bazkideetako batek –enpresaren kapitalaren ehuneko 49 zeukan– proiektuarekin aurrera ez jarraitzeko borondatea agertu baitzuen, Sodenak bere partaidetza saltzearen alde onak eta txarrak aztertu zituen. Salmentarik ez zen egin, enpresaren kapital guztia erosteko bazkide industrial berri batek aurkeztutako eskaintzak eragiten zituen ondorio ekonomiko negatiboak zirela eta.

2005ean, 2006an eta 2007an, CTC Construcciones enpresaren egoera ekonomikoak bilakaera ona zuen, nahiz eta galerak izaten jarraitzen zuen, eta negoziazioekin jarraitu zuten bazkide industrial berri bat sartzeko. Bazkide horrek enpresaren partaidetza guztiak erosi zituen 2008an. Sodenak bere partaidetza 747.437 euroan saldu zuen –harengatik 2.907.092 euro ordainduak zituen–, eta, horrenbestez, 2.159.655 euroko galera izan zuen. Gainera, berreskuratu ez zuen mailegu bateko 500.000 euro galdu zituen.

Honakoak izan ziren Sodenak enpresa horrekin egin zituen finantza-eragiketak:

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2007	2008
Kapitaleko partaidetzak	901.518			1.665.418				340.460
Partaidetza-maileguak ⁽¹⁾		618.441	1.046.672		340.460			
Diruzaintzako maileguak					280.000	188.000	700.000	
Abalak				798.760				

(1) kapitalizatuak

Emandako partaidetza-maileguak kapitalizazioaren bitartez kitatu ziren; izan ere, Sodenak eskuratu zituen enpresak 2003an eta 2008an onetsi zituen kapital-handitzeak. Diruzaintzako maileguen 1.168.000 euroko kopuruaren guztizkotik, Sodenak 122.069 euroko interesak kobratu zituen, eta printzipaletik 500.000 euro berreskuratu zituen.

Abalek ez zioten inongo kalterik eragin Sodenari.

MADERAS OLAZTI

Sodena 2000n sartu zen Maderas Olazti enpresan, produkzio-linea berri baterako finantza-laguntza emateko asmoz. Linea hori kontratxapatuko oholak fabrikatzekoa zen; produktu hori ez zen existitzen Nafarroan. Horretarako, enpresako kapitalaren ehuneko 32 eskuratu zuen kapital-handitze batean, zeinean 601.040 euro ordaindu zituen.

2002an, Sodenak bere partaidetza saltzea erabaki zuen, zeren eta ez baitziren betetzen negozio-planaren aurreikuspenak eta bazkide sustatzaile gisako papera ez zelako garatu. Dokumentazioan jasota dago Sodenak zenbateko ahalegina egin zuen –emaitzarik gabe–, gainerako bazkideekin batera, konpainian beste bazkide inbertsio-egile bat sar zedin.

200an, Sodenak bere partaidetzak euro bateko prezio sinbolikoan saldu zituen, eta 601.039 euroko galera izan zuen.

2003an, enpresari bi partaidetza-mailegu emanak zizkion, guztira 179.773 eurokoak, baina ez ziren berreskuratu. Sodenak, halaber, 2002an emandako 26.692 euroko abal batetik 14.064 ordaindu zituen.

Guztira, Maderas Olaztin egindako inbertsioak 794.876 euroko galerak ekarri zizkion Sodenari.

LORPENAK, S.L.

2002an, kirol galtzerdi teknikoaren fabrikazioaren arloan ziharduen Industrias Sadivai, S.L. enpresan parte hartu zuen Sodenak, I+G inbertsioa sustatzeko eta hedapena bultzatzeko. Sodenak jo zuen produktu berritzaile bat garatzeko proiektua zela, abangoardiako teknologiarekin eta balio gehigarri batekin, aisiarekin lotua, esparru horretan baitzuen merkatua.

Horri dagokionez, Sodenak 540.592 euro inbertitu zituen Industrias Sadivai, S.L.ren kapitalaren ehuneko 45ean, eta 30.370 euroko mailegu bat eman zion. Enpresan zazpi urte geratzeko konpromisoa hitzartu zen.

2006an, Industrias Sadivai NAFTA (Estatu Batuak, Kanada eta Mexiko) merkatuan hedatzeko. Horretarako, antolaketa berri bat diseinatu zen, Nafarroan helbide soziala zuen taldearen sozietate matrize batekin, Lorpenak Navarra, S.L., eta hiru filialek inbertsio-egile industrialen bidez, horietako bat Industrias Sadivai–, hirurak guztiz sozietate matrizearenak.

Lorpenak-eko bazkideak Industrias Sadivaiko bazkideak izan ziren, zeinek azken horretan zeuzkaten partaidetzak jarriz eta dirurik ordaindu gabe, sozietate berrian Industrias Sadivai, S.L.n zeuzkaten kapital-portzentaje bera eskuratu baitzuten –ehuneko 45, Sodenaren kasuan–.

Sodena Lorpenak, S.L.n geratzeko beste konpromiso bat lortu zen, gehienez ere 2012ra artekoa.

Enpresak emaitza negatiboak izan ditu 2008ko ekitalditik. 2013ko abuztuan, likidazio-konkurto bat aurkeztu zuen, eta haren produkzioko negozio-unitatea inbertsio-egile industrial bati esleitu zitzaion; inbertsio-egile horrek finantza-baliabideak inbertitu ditu, jarduketarekin jarraitzen du eta Etxalarren zegoen enpleguari eutsi dio.

2013ko abenduaren 31n, Sodenak enpresan parte hartzen jarraitzen du eta hartan inbertitutako guztiak, 810.576 euro, zero balio garbia dauka.

FINAVES II, S.C.R.

Finaves Bartzelonako IESEren arrisku-kapitaleko sozietate bat da, ikasleek eta ikasle ohiek sustatutako proiektuak finantzatzen dituena.

2003an, Sodenak Finaves II, S.C.R.ren eraketan parte hartu zuen, haren kapitalaren ehuneko 10 erositik. Haren truke, 272.730 euro ordaindu zituen, proiektu berritzaileak Nafarroara bideratzeko xedez.

Ez zen bazkideen arteko hitzarmenik sinatu.

Finaves IIren bitartez Nafarroara bideratu eta Nafarroan ezarri zen proiektuetako bat Smart Mecial Groupen inbertsioa izan zen.

2007an, Finavesek bere kapital soziala gutxitu zuten kapitalaren eta ondarearen arteko oreka berrezartzeko, zeren eta galeren ondorioz ondarea gutxituta baitzegoen.

Sodenak 10 urtez hartu zuen parte enpresa horretan. 2013an, Sozietatea desegin eta likidatu zen eta Sodenaren partaidetzari, zeina 240.002 eurokoa baitzen, 23.857 euroko likidazioa egokitu zitzaion; horrekin, 216.145 euroko galera bat izan zen.

FORO EUROPEO DE FORMACIÓN PROFESIONAL, S.L.

Foro Europeo de Formación Profesional, S.L. 1992an sortu zen, Nafarroako Foru Komunitateko zuzendari eta enpresariei prestakuntza ematek eta halakoak garatzeko asmoz.

2004an, Sodenak Foroko kapitalaren ehuneko 15 erosi zuen. Horretarako, 735.867 euro ordaindu zituen. Sodenaz gainera, kapital sozialean, Nafarroako zuzendari, profesional eta enpresak hartzen dute parte.

Ez dago negozio planik, berez Sodenak lehentasunezkoa ez den sektore bateko enpresa batean parte hartzea justifikatzen duenik.

Sodenak bost urtez geratzeko konpromiso bat hitzartu zen. Epe hori iraganda, beste klausula batzuen artean, ezarri zen Sodenak eskubidea zuela exijitzeko bere partaidetza Foroak eros zezan, erosketa prezioari euriborra gehi ehuneko biko interes tasa gehituta.

Partaidetzak saltzeko eskubideaz baliatzeko Sodenak egin zuen eskariari Foro Europeok erantzun zuen esanez ezin zituela bere betebeharrak bete likidatzeaz ez edukitzeagatik eta enpresaren finantza-egoera zela eta.

Sodenak, sozietaterako erosle bat aurkitu ezinik, 2013ra arte egon zen Foro Europeoan. Urte horretan, bere partaidetza, guztiz andeatuak, sozietateari berari dohaintzan eman zizkion.

EPSILÓN 5

Epsilon 5 karterako sozietate bat da, 1996an ehuneko 90a zuena Nafarroan aluminio-anodizatuaren arloko planta industrial bateko ustiatzea jardueran nagusi gisa zuen konpainia batean.

Sodenak sozietate horretan parte hartu zuen Nafarroako planta finkatzeko xedez eta aluminioaren akaberaren sektoreko Espainiako talderik handienak Nafarroan egoitza izan zezan; hori dela eta, baliabideak jarri zituen taldean sar zedin aluminio-profilen laktatuaren arloko Arabako enpresa bat sar zedin. Enpresa horrek presentzia garrantzitsua zuen Euskadin, Nafarroan eta Frantziako zenbait tokitan, eta finantza-kaudimena zuen.

Inbertsioak errentagarritasun orokor positiboa zuen: finantza-errentagarritasuna, errentagarritasun fiskala (helbide sozial eta fiskala Nafarroan zuen sozietate-talde bat) eta estrategikoa (sektoreko talderik handiena Espainian).

2006an, enpresan parte hartu baino lehen, Sodenak 1.750.000 euroko partaidetza-mailegu bat eman zion Arabako aipatutako merkataritza-enpresaren erosketa finantzatzeko; kopuru horre-

tatik, 1.084.070 euro urte berean kapitalizatu ziren, Sodenak Epsilon 5 enpresaren kapital sozialaren ehuneko 16,66 eskuratu baitzuen.

Eraikuntzaren sektorearen krisiak eragin oso negatiboa izan zuen Epsilon 5en jabetzako konpainiaren Nafarroako plantako aluminio-anodizatuaren jardueran; izan ere, Espainiako eskaria izugarri jaitsi zen 2007tik aurrera. Enpresak kontratu guztiak deuseztatzeko ERE bat aurkezteko zeukan asmoa zela eta, Sodenak sozietateari bere partaidetzak saldu zizkion erositako prezio berean. 1.750.000 euroko prezioaren epekako ordainketa bermatua adostu zen (kapitaleko partaidetzaren 1.084.070 euro gehi maileguetatik ordaintzeko zegoen 665.930 euroko kopurua), lau urtetan, euriborra gehi ehuneko 1,25 interes tasarekin. 2014ko uztailaren 1ean, Epsilon 5ek Sodenarekin zeuzkan konpromiso guztiak ordaintzen amaitu du.

PAMPLONA LEARNING SPANISH INSTITUTE, S.L.

Enpresa hau 2005ean sortu zen, Clen Collegak (atzerriko hizkuntzen irakaskuntzarako Nafarroako zentro bat) sustatua. Horren helburua zen Iruñean gaztelania irakasteko zentro bat egitea, zeinak, aldi berean, Nafarroaren ondare historiko, kultural eta ingurumenekoaren zabalkundea egiten zuen.

Proiektuaren balorazioan, Sodenak aintzat hartu zuen finantza-errentagarritasuna eta errentagarritasun estrategiko positiboa zituela eta Nafarroaren berri ematen zuela. Gainera, Instituto Cervantes erakundearen akreditazioa zuen.

Sodenak 2006an kapital sozialaren ehuneko 44,88an parte hartu zuen, 194.004 euro jarritz; 2008an eta 2010ean enpresaren kapitalaren handitze batzuk erosi zituen, 115.329 eta 190.291 eurokoak, hurrenez hurren; guztira, beraz, 305.620 euro jarri zituen. 2011n, Sodenak bere partaidetza saldu zuen, euro baten truke, eta 499.623 euroko galera izan zuen.

2006tik, enpresak emaitza negatiboak izan zituen, eta 2007tik 2011ra Sodenaren partaidetzak zeroko balio garbia zuen.

Honakoak izan ziren Sodenak enpresa horrekin egindako beste finantza-eragiketa batzuk:

	2006	2008
Maileguak	11.223	
Abalak	113.995	76.296

Maileguak 2006an eman zitzaizkion Clen Collegeko bi enplegaturi –Pamplona Learningen lan egiten zuten–, enpresa horretako partaidetzak erosteko, eta zegozkien interesekin itzuli ziren.

Abalak 2010ean kitatu ziren, abal-emaileek zor zituzten kopuruak ordainduta. Sodenak 190.291 ordaindu zituen eta kopuru hori 2010ean kapitalizatu zuen.

ESTUDIOS DE INGENIERÍA ADAPTADA, S.L.U.

Estudios de Ingeniería Adaptada enpresa prozesu industrializatuak automatizatzeko makina errobotizatuaren diseinuan eta fabrikazioan dihardu, bereziki aeronautikaren sektorerako eta sektore eolikorako.

Sodenak laguntza finantzarioa eman zion hazkunde-plan bat finantzatzeko. Horretarako, 2007an, kapitalaren ehuneko 345 erosi zuen, 600.000 euroan.

Proiektua erakargarritzat jo zen bere errentagarritasun fiskal eta estrategikoarengatik –azken hori inbertsioaren zutabea–, bost urtean 50 lanpostu sortzean oinarritua, eta horrek azpi-kontratistetan eragin lezakeen arrastatze-eraginean.

2009an, ez ziren betetzen ari planeko aurreikuspen ekonomikoak, eta enpresak zirkulatzaile premiak zeuzkan, plan horretan jaso gabekoak. Gainera, aurreko ekitaldietan metatutako galerek eragindako ondare-desorekak enpresaren desegitea eragin lezake.

Sodenak, sozietatea likidatzeko aukeraren aurrean, erabaki zuen hari laguntza ematen jarraitzea, zeren eta jo baitzuen merkataritza-arloan aurrerapen garrantzitsuak lortuak zituela, bai produktuan, bai giza taldearen finkapenean, besteak beste. Gainera, baloratu zuen nolako ekarpena egiten zuen Nafarroako sektore estrategikoetarako, bai eta energia berriztagarrietarako eta aeronautikarako, eta horietarako zekarren osagai berritzailea, profesionaltasuna eta zuzendaritza-taldearen motibazioa ere. Beste negozio plan bat aurkeztu zen.

2012an egiaztatu zen negozio plan berria gutxi betetzen ari zela eta konpainiak likidezia-krisian zegoela. Hori zela eta, beste bazkide industrial bat bilatzeko premia eragin zuen, aurreikusitako hazkunde-planerako.

Bilaketa horren amaieran, 2013an, errobotikaren arloan espezialista zen talde industrial bat sartu zen. Konpainiaren ehuneko 83 erosi zuen, eta hartan 750.000 euroko funts-injekzioa egin zuen, beste 750.000 euro jartzeko konpromisoarekin.

2013an, eta bazkide industrial sartzeko eragiketarekin lotuta, Sodenak, konpainiako 13 enpleguei eusteko xedez eta konpainia Nafarroan geldi zedin, enpresa horren bazkideari –lehen zuzendari nagusia zenari– partaidetzen ehuneko 55 erosi zion 390.678 euroan (kapitala gehi interesak). 2009an, Sodenak zuzendari nagusiari 340.905 euro emanak zizkion maileguan partaidetza horiek eros zituan.

Sodena, minutu batzuez, enpresako bazkide bakarra izan zen.

Bazkide industrial berria enpresan sartzeak eragin zuen Sodenak harekin hitzartutako honako baldintzak betetzea:

- Emandako mailegu eta interes gehienak kapitalizatzea, sozietatearen galerak konpentsatzeko. Horri dagokionez, 5.070.154 euro jarri zituen.
- Enpresari 92.257 euroko mailegua ematea, merkataritza-eragiketetako saldoak kitatzeko.
- 750.000 euroko kapital-handitze bat erostea.

Bazkide inbertsio-egile berriak 750.000 euro mailegatu zizkion Sodenari, interesik gabe, zenbateko berarekin Estudios de Ingeniería Adaptada konpainian kapitaleko partaidetzak eros zituan. Ondoren, Sodenak inbertsio-egile industrial berriari, zenbateko beraren truke, konpainia horretan zuen kapitalaren ehuneko 83 saldu zion.

Honakoak izan ziren Sodenak Estudios de Ingeniería Adaptada enpresari egindako finantza-ekarpenak:

	2007	2008	2009	2011	2012	2013	Guztira	Interesak
Kapitalean parte hartzea	600.000					5.460.831	6.060.831	
Partaidetza-maileguak ⁽¹⁾		500.000	2.340.905	45.000	550.000	1.227.188	4.663.093	597.739
Beste mailegu batzuk						92.257	92.257	
Abalak						200.000	200.000	

(1) kapitalizatuak, beren interesekin

2013ko abenduaren 31n, Sodenak enpresaren kapitalaren ehuneko 17ko partaidetza hartu zuen, 6.060.831 euroko kostuarekin. Horren kontabilitate-balio garbia, berriz, 0 eurokoa da, eta enpresak Sodenari 92.257 euro zor dizkio 2013ko uztailean eman zion azken mailegutik.

Sodenak EINAn jarritako kapitalaren guztizko desinbertsioa 2017ko hasierarako dago aurreikusita, zeren eta bazkide berriaren aldeko erosketa egiteko aukera bat bai baitago, bai eta Sodenaren aldeko salmenta egiteko aukera ere.

KYB ADVANCED MANUFACTURING SPAIN, S.A.

Kyb Advanced Manufacturing Spain S.A. (KAMS) enpresa KYB taldekoa da. KYB, berriz, multinazional japoniar bat da, 1919an sortua, eta automozio-, trenbide-arloaren eta aeronautika-sektoreen hidraulikaren esparruan egiten du lan, besteak beste. KYBek 2004an Ororbiako AP Amortiguadores enpresa erosi zuen (gaur egun KYB Suspensions Europe, S.A. da).

2009an, Sodenak bost milioi euro inbertitu zituen KAMS enpresaren kapitalaren ehuneko 33,33 erosteko, Los Arcosen motelgailuen produkzioarako planta berri baten ezarpena finantzatzeko. Sei eta zortzi urte bitarteko iraupen-konpromisoa hitzartu zen. Halaber, milioi bat euroko banku-abal bat jarri zen. Abal horrek indarrean jarraitzen du 2013ko ekitaldiaren amaieran.

Inbertsioak ehuneko 10eko finantza-errentagarritasuna zuen desinbertsioaren unean; lau urtean sortutako 140 lanpostuek dakarten errentagarritasun fiskala; eta automozioaren sektorea ainguratzeak eta sendotzeak dakarten errentagarritasun estrategikoa.

Gainera, Sodenak honakoak hartu zituen aintzat: talde sustatzailearen esperientzia eta eza-gupenak eta inbertsio hori Sodenaren helburu den sektore batean –krisi-koiunturan multinazionaleri laguntzea– egitekoa zela.

Inbertsioak taldearen babesa zuen, bai eta Nasuinsak plantaren eraikuntzan 8,5 milioi euro finantzatzeko konpromisoa ere.

Sodenak exijitu zuen taldeak Ororbian eta Orkoienen dituen bi produkzio plantetan enpleguari eustea, bai eta planta berriak lehentasuna edukitzea ere taldeak garatu beharreko proiektuetan eta taldearen I+G gunea izatea taldearen Europako esparruan.

Negozio-plan horren emaitzak kalkulaturakoak baino okerragoak izan ziren, zeren eta fakturazioaren ehuneko 68 biltzen zuen bezero nagusiak bere erosketak Txinara aldatu baitzituen.

Sortutako enpleguei dagokienez, enpresaren datuen arabera, plantak 86 langile zeuzkan 2013an.

VI.8. SOZIETATE PUBLIKOAK

2002tik 2013ra Sodenak 7.583.605 euro inbertitu zituen honako lau sozietate publiko hauetan:

Beste jarduera sektore batzuk	Xede soziala	Inbertsioaren urtea	Kapitaleko inbertsioa
Fondo de Jóvenes Empresarios	Enpresak bultzatu eta sustatzea haien kapitalean parte hartuz	2007	3.006.000
Navarra de Suelo Industrial	Industriarako lurzoruaen sustapena	2009	2.985.141
Start Up Capital Navarra	Enpresak bultzatu eta sustatzea haien kapitalean parte hartuz	2011	901.000
Centro Europeo Empresas e Innovación	Enpresa txiki eta ertainen sustapena	1991	691.164

2011n, enpresen sektore publikoa berrantolatzekeo prozesuaren barruan, Corporación Pública Empresarial de Navarrak eta Sodena, S.A.k Sodenaren jabetzakoak ziren Navarra de Suelo Industrial eta Cein sozietateen akzioak permutatu zituzten Sodena, S.A.ren beraren akzioekin, zeinak Corporación Pública Empresarial de Navarraren jabetzakoak baitziren.

Sodena zen Fondo de Jóvenes Empresarios sozietatearen akziodun bakarra –3.006.000 euroko kapitalarekin eratua zen–. Kopuru horretatik, Sodena, S.A.k 1.206.000 euro ordainduak zituen. Fondo de Jóvenes Empresarios Sodena, S.A., Navarra de Financiación y Control eta Navarra de Gestión para la Administración sozietate publikoekin bat egin zuen, eta haren ondarea azkendu eta Sodena, S.L. sozietate berriari eskualdatu zitzaion.

CENTRO EUROPEO DE EMPRESAS E INNOVACIÓN DE NAVARRA (CEIN), S.A.

Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra (CEIN, S.A.) 1991n eratu zen, Nafarroako Gobernuari laguntza emateko foru erkidegoaren garapen ekonomiko eta teknologikoan, Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra kudeatzeko, enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza-jarduketan sorrera bultzatzek eta enpresa horiei jarduketa berriak ezartzeko laguntzak eta zerbitzuak emateko.

Bere eraketan, CEIN, S.A.k Nafincoren ehuneko 99ko partaidetza zuen, eta Sodenaren eta Cetenasaren –gero Navelsaren– ehuneko 0,5nako partaidetza. 1992an, Nafincok bere partaidetzaren ehuneko 20,5 saldu zien 41 bazkide berriri, balio nominalaren truke.

2005ean, jo zen Nafincok beteak zituela Cein, S.A.ren sorrerarako eta garapenerako helburuak, eta haren jarduketak Sodenaren eginkizunen barruan sartzen zirela. Hurrengo urtean, Sodenak Nafincori eta Navelsari Cein, S.A.n zituen akzio guztiak saldu zizkien beren balio nominalaren truke: Nafincori 687.558 ordaindu zizkion eta Navelsari, berriz, 3.606 euro.

2006ra arte Sodenak Ceinen zuen partaidetza ehuneko 0,5ekoa zen; hau da, Sodenaren araudian ezarritako gutxienezkotik –ehuneko bat– beherakoa. 2006tik aurrera, Sodenak Ceinen zuen partaidetza ehuneko 95,92koa zen; beraz, ezarritako gehieneko portzentajetik –ehuneko 45– gorakoa. 2007ko martxoan, Nafarroako Gobernuak baimena eman zuen portzentaje hori gainditzeko.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Asunción Olaechea Estanga auditore andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA: 2002tik 2013ra BITARTEKO ALDIAN PARTE HARTUTAKO ENPRESA KOTIZAZIO GABEAK

ENPRESA	Jarduera	Sektorea	Partaidetzaren hasiera	Inbertsioa 2002/01/01ean	2002-2013 aldian guztira egindako inbertsioa
3P Biopharmaceuticals, S.L.	Jatorri biologikoko substantzia terapeutikoak, farmaziarako graduan	Bioteknologia	2007		2.505.140
Activery Biotech, S.L.	Produktu farmazeutikoak eta sendagaiak	Bioteknologia	2008		870.062
Albyn Medical, S.L. (Iehenago, Smart Medical Group)	Urologiarako eta gastroenterologiarako ekipamendua eta kontsumigarriak	Bioteknologia	2006		730.000
Angel Garro, S.L.	Gozogintza eta opilgintza industriala	Nekazaritza-elikagaiak	2007		1.304.011
Aprovechamiento Térmicos Ermitagaña, S.L.	Energia berriztagarriak	Energia eta ingurumena	2013		1.204
Aprovechamiento Térmicos Landaben, S.L.	Energia berriztagarriak	Energia eta ingurumena	2013		1.204
Bioenergía Mendi, S.L.	Minden tratamendurako biogasaren bidezko kogenerazio planta	Energia eta ingurumena	2010		239.625
Biotech Navarra Investigación, S.L.	Bioteknologiaren eta medikuntzaren arloko ikerketak	Bioteknologia	2003		3.000
Burnizko, S.A.	Ibilgailuak fabrikatu, konpondu eta merkaturatzea	Beste batzuk	2011		10.320.001
Nafarroako Rural Kutxa	Finantza-eragiketak	Beste batzuk	2012		360
Caviar del Reyno, S.L.	Kabiarrak egitea	Nekazaritza-elikagaiak	2008		14.535
Caviar Perse S.L. (Piscifactoría Sierra Nevada, S.L.)	Kabiarrak egitea	Nekazaritza-elikagaiak	2008		8.774.095
Cein	Enpresa txiki eta ertainen sustapena	Beste batzuk	1991	601	691.464
Corporación Energía Hidroeléctrica de Navarra, S.A.	Energia berriztagarriak	Energia eta ingurumena	1989	4.657.844	44.642.883
Cromasa Identificación Electrónica, S.A.	Animaliak identifikatzeko txipak	Sektore teknologikoa	2004		457.088
CTC Construcción, S.A.	Hormigoizko aurrefabrikatuak	Beste batzuk	2000	901.518	2.005.574
Cultivos de Navarra, S.L.	Nekazaritzako produktuak	Nekazaritza-elikagaiak	2011		37.175
Digna Biotech, S.L.	CIMA, S.L. biomedikuntza proiektutik lortutako patenteen ustiaketa	Bioteknologia	2003		3.302.080
Ecoenergía Navarra, S.L.	Minden tratamendurako kogenerazio planta	Energia eta ingurumena	2003		1.713.750
Ecoenergía Sistemas Alternativos, S.L.	Minden arazketari buruzko patenteen ustiaketa	Energia eta ingurumena	2003		928.942
Elara Ingenieros, S.L.	Prozesu eta sistema industrialen arloko ingeniarietza	Sektore teknologikoa	2007		200.000
Epsilon 5, S.A.	Aluminioa anodizatzea eta lakatzea	Bestelakoak	2006		1.084.070
Estudios de Ingeniería Adaptada, S.L.U.	Ebakitzeko eta soldatzeko makineria berezia	Bestelakoak	2007		6.060.831
Finaves II, S.C.R.	IESEko ikasleen proiektuak finantzatzea	Bestelakoak	2003		272.730
Fondo de Desarrollo Turístico, S.P.E., S.A.	Turismoko eta aisiako enpresak bultzatu eta sustatzea	Turismoa	2003		1.223.939
Fondo Jóvenes Empresarios Navarros, S.A.U.	Enpresen sustapena, aldi baterako partaidetzaren bidez	Beste batzuk	2007		3.006.000
Fondo Ysios Biofund	Bioteknologian espezializatutako inbertsio funtsa	Bioteknologia	2008		10.000.000

ENPRESA	Sozietate-helburua:	Sektorea	Partaidetzaren hasiera	Inbertsioa 2002/01/01ean	2002-2013 aldian guztira egindako inbertsioa
Formune, S.L.	Produktu kimikoak	Bioteknologia	2012		1.125.000
Foro Europeo de Formación Profesional	Enpresen sustapena eta aholkularitza	Bestelakoak	2004		735.867
Fundación, Investigación, Desarrollo e Innovación Medioambiental	Ingurumenaren arloko teknologia	Energia eta ingurumena	2007		523.515
Fundación, Investigación y Desarrollo en Nanotecnología	I+G, nanoteknologiako negozioak garatu eta sustatzea	Sektore teknologikoa	2007		1.555.149
Futura Acorp, S.L.	Teknologia berrien arloko konponbideak ikertu eta garatzea	Sektore teknologikoa	NGA		168.069
Idifarma Desarrollo Farmacéutico, S.L.	Botikak	Bioteknologia	2006		1.808.580
Ingeniería Domótica	Domotika zerbitzuak eta ingeniari-tza proiektuak	Sektore teknologikoa	2006		335.288
Inveready Biotech II, S.L.	Bioteknologiaren arloko inbertsio funtza	Bioteknologia	2013		245.000
Inveready Seed Capital, S.C.R.	Oinarri teknologikoko enpresa berritzaileetan inbertitzea	Sektore teknologikoa	2008		1.000.000
Investigaciones y desarrollos eólicos, S.L.	I+G, energia sortzearen arloko materialak eta berrikuntza teknologikoak	Energia eta ingurumena	2010		572.727
Job Accomodation, S.L.	Desgaitasuna duten pertsonentzako produktu eta zerbitzuak	Beste batzuk	2011		90.000
Kyb Advanced Manufacturing Spain, S.A.	Moteligailuen fabrikazioa	Bestelakoak	2009		5.000.000
Laboratorios Ojer Pharma, S.L.	OTC sendagai dermatologiko berriak garatzea	Bioteknologia	2007		526.790
Lorpenak, S.L.	Kirolerako galtzerdien fabrikazioa eta merkaturatzea	Sektore teknologikoa	2002		810.576
Mizanor, S.A.	Plater aurrez kozinatua	Nekazaritza-elikagaiak	2009		1.319.440
Nanotech Fund FCR	Nanoteknologiaren sektoreko funtza	Sektore teknologikoa	2009		2.000.000
Natural Climate System (Miyabi)	Etxebizitza bioklimatikoaren garapena	Energia eta ingurumena	2001	180.000	819.750
Navarra de Excelencia Turística, S.L.	Ostalaritzaren eta aisiaren sektoreko zerbitzuak	Turismoa	2003		1
Navarra de Suelo Industrial, S.A.	Industriarako lurzoruen sustapena	Beste batzuk	1997	510.860	2.985.141
Navarra de Verificaciones Legales SA	Zentro teknologikoak/metrologia	Sektore teknologikoa	1989	48.081	18.030
Navarra Iniciativas empresariales	Enpresen sustapena, aldi baterako partaidatzearen bidez	Beste batzuk	Nafinco		3.972.000
Navarra de Tratamiento del Agua, S.L.	Uraren tratamendurako osagaien fabrikazioa eta salerosketa	Bioteknologia	2009		378.789
Noi Navarra	Haize-sorgailu eolikoetarako palak	Energia eta ingurumena	2002		2.529.540
Olus Tecnología, S.L.	Nekazaritza-elikagaien esparruko ikerketa- eta garapen-proiektuak	Nekazaritza-elikagaiak	2008		378.000
Open Bravo	Kode irekiko enpresa-kudeaketako konponbide informatikoak	Sektore teknologikoa	2006		1.623.406
Palo Biofarma, S.L.	Farmaziako produktuak	Bioteknologia	2013		694.453
Pamplona Learning Spanish Institute, S.L.	Gaztelaniaren irakaskuntza	Beste batzuk	2006		499.624
Potasas de Subiza	Ingurumen jardura eta industria ehundura berrosatzea	Energia eta ingurumena	Nafinco		371.000

ENPRESA	Sozietate-helburua:	Sektorea	Partaidetzaren hasiera	Inbertsioa 2002/01/01 ean	2002-2013 aldian guztira egindako inbertsioa
Principia Technology Group, Inc.	Transferentzia teknologikoko proiektuen arloko aholkularitza	Sektore teknologikoa	2007		505.501
Professional Buying&Logistics Services, S.L.	Logistika katearen kudeaketa	Logistika	2001	601.035	17.800
Proretina Therapeutics, S.L.	Erretinaren degenerazioak tratatzeko sendagaiak	Bioteknologia	2009		608.999
Proyecto Biomedicina CIMA	Inbertsio bioteknologikoen garapena eta ustiaketa	Bioteknologia	2003		266.014
Sociedad Logística Alimentaria Navarra, S.A.	Elikagai izoztuen biltegitratzea	Logistika	2004		600.000
Soluciones y Sistemas Solares, S.L.	Energia sortzea energia berriztagarrien bidez	Energia eta inguru-mena	2007		1.000.000
Soysi Investment, S.L.	Bioteknologiaren arloko inbertsio funtsa	Bioteknologia	2007		730
Start Up Capital Navarra, S.A.	Enpresen sustapena, aldi baterako partaidetzaren bidez	Beste batzuk	2000	901.000	901.000
Suan Biotech, F.C.R.	Bioteknologian espezializatutako arrisku-kapitaleko funtsa	Bioteknologia	2007		2.910.000
Tedcas Medical Systems	Osasunaren sektoreran bideratutako teknologiak	Sektore teknologikoa	2013		450.000
Tenaria (gaur egun, France Telecom)	Telekomunikazio sareak instalatu eta ustiatzea	Sektore teknologikoa	1997	5.133.545	7.702.101
Tutti Pasta, S.A.	Elikagai izoztuen ekoizpena	Nekazaritza-elikagaiak	2004		530.492
Twin Screw 2007, S.L.	Kontabilitate-, finantza- eta kudeaketa-zerbitzuak (osasunaren eta elikaduraren arloetan)	Nekazaritza-elikagaiak	2008		1.664.286
Wututu, S.L.	Publiztaterako eta marketinerako 3D teknologia	Sektore teknologikoa	2007		499.953
GUZTIRA				12.934.484	150.132.374

47 2. ERANSKINA: 2002-2013 EPEAN PARTE HARTUTAKO ENPRESEI EMANDAKO MAILEGUAK

ENPRESA	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
Epe luzeko maileguak													
Activery Biotech, S.L.						123.000							123.000
Albyn Medical, S.L.							450.000	300.000					750.000
Ángel Garro						450.000	222.059						672.059
CTC Construcción, S.A.	1.046.672		340.460			700.000					997.843		2.087.132
Digna Biotech											80.000	47.929	127.929
Ecoenergía Sistemas Alternativos, S.L.													997.843
Epsilon 5, S.A.				1.750.000									1.750.000
Estudio de Ingeniería Adaptada							500.000	2.340.905	45.000	550.000	1.319.445		4.755.350
Fondetursa										86.899			86.899
Fidima Fundazioa						400.000							400.000
Futura Accorp											112.500		112.500
Sunsundegui Taldea										1.200.000			1.200.000
Idifarma					304.750		155.768						460.518
ID Ingeniería Acústica									10.000				10.000
Industrias Sadivai, S.L.	30.370												30.370
Intelligent Software Components											45.082		45.082
Maderas Olazti, S.L.	179.773												179.773
Mizanor, S.A.								300.000	326.736				626.736
MTS Tobaco, S.A.									1.000.000				1.000.000
Navarra de Tratamiento del Agua, S.L.								50.000	150.000	96.798			296.798
Natural Climate Systems											101.007		101.007
Noi Navarra, S.A.			2.717.380	809.969									3.527.349
Olius Tecnología, S.L.							388.000	454.000					842.000
Open Bravo, S.L.					1.765.022	1.600.000				80.069			3.445.091
Parque de la Naturaleza, S.A.				10.097.452	9.073.368	9.634.792	5.840.570	5.978.384	4.049.582	4.000.309	3.336.286	3.416.408	55.427.150
Pharmamodelling											30.000		30.000
Piscifactoría Sierra Nevada, S.L.								2.480.567	837.767		42.000		3.360.334

ENTPRESA	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
Potasas de Subiza											1.102.391		1.102.391
Professional Bu- ying&Logistics Services, S.L.	20.118										6.970		20.118
Proyecto Biomedicina Cima						781.063				28.500			28.500
Ronda TIC FCR													781.063
Soysi Investment									360.400				360.400
Start Up Capital Navarra SA													5.983.542
Tenaria, S.A.	3.007.500	2.976.042											35.512
Tutti Pasta, S.A.			35.512										
Epe luzeko maileguak, guztira	4.264.315	2.996.160	3.093.352	10.907.421	12.893.140	13.565.855	7.679.397	11.903.856	5.724.485	5.260.676	7.432.389	5.042.371	90.763.417
Epe laburreko maileguak													
Activery Biotech, S.L.							133.550			16.822			150.372
Albyn Medical, S.L.				200.000									200.000
200.000 Angel Garro					184.559	352.692	952.553						1.489.804
Cromasa IE								229.023					229.023
CTC Construcción, S.A.			280.000	188.000									468.000
Digna Biotech									81.218				81.218
Ecoenergía Sistemas Alter- nativos, S.L.					217.866				1.175.000	129.000			1.521.866
FIDENA Fundazioa									250.000				250.000
Sunsundegui Taldea								3.900.000					3.900.000
Natural Climate Systems SA								600.000					600.000
Parque de la Naturaleza			2.000.000										2.000.000
Piscifactoría Sierra Nevada, S.L.									622.091	75.641			697.732
Proyecto Biomedicina Cima					18.000	5.300		13.400	2.100	2.820			720.286
Soysi Investment							163.437						163.437
Tenaria, S.A.	2.646.364	2.671.013											5.317.377
Twin Screw 2007, S.A.							720.000						720.000
Epe laburreko maileguak, guztira	2.646.364	2.671.013	2.280.000	188.000	18.000	423.166	1.067.996	499.642	3.432.962	4.603.306	0	678.666	18.509.115
Emandako maileguak, guztira	6.910.679	5.667.173	5.373.352	11.095.421	12.911.140	13.989.021	8.747.392	12.403.498	9.157.447	9.863.982	7.432.389	5.721.037	109.272.532

3. ERANSKINA: 2002-2013 ALDIKO FINANTZA-DESINBERTSIOAK PARTE HARTUTAKO ENPRESEN KAPITALEAN

ENPRESAK	Sektorea	Salmenta-urtea	Saldutak partaidetzaren kostua	Salmenta-prezioa	Emitza
Activery Biotech, S.L. (likidazioa)	Bioteknologia	2009 2013	68.817 801.245	71.301 0	2.484 -801.245
Aprotel XXI, S.L.	Teknologikoa	2012	65.000	0	-65.000
Biotech Navarra Invest., S.L.	Bioteknologia	2004	3.007	2.340	-667
Burnizko, S.A.	Bestelakoak	2013	10.320.001	1	-10.320.000
Cinfa	Bioteknologia	2002	895.418	3.752.674	2.857.256
Corporación Energía Hidroeléctrica de Navarra	Energia eta ingurumena	2003 eta 2004	49.300.727	401.869.001	352.568.274
Cromasa	Teknologikoa	2005	26.683	1	-26.682
CTC Construcción	Bestelakoak	2008	2.907.092	747.437	-2.159.655
Cultivos de Navarra, S.L.	Nekazaritza-elikagaiak	2012	37.175	37.314	139
Digna Biotech	Bioteknologia	2004	4.200	4.200	0
Ecoenergía Navarra, S.L.	Energia eta ingurumena	2011	1.713.750	7.093.687	5.379.937
Ecoenergía Sist.Alternativos, S.L.	Energia eta ingurumena	2012	500.000	400.000	-100.000
Elara Ingenieros	Teknologikoa	2013	200.000	433.321	233.321
Epsilon	Bestelakoak	2009	1.084.070	1.084.070	0
FC Pharmaceutische Grup., S.L.	Bioteknologia	2009	378.638	0	-378.638
Finaves II CR, S.A. (likidazioa)	Bestelakoak	2008 2013	32.728 240.002	32.728 23.857	0 -216.145
Fondo Ysios Biofund	Bioteknologia	2011	773.323	718.353	-54.970
Foro Europeo, S.L.	Bestelakoak	2013	735.867	1	-735.866
Gas Navarra	Energia eta ingurumena	2008	360.607	9.100.000	8.739.393
Grondel	Bestelakoak	2005	255.430	0	-255.430
Grupo 21 Sec. Gestión, S.A.	Teknologikoa	2012	3.000.000	4.129.089	1.129.089
Idifarma Desarrollo Farmac.	Bioteknologia	2007	605.305	605.305	0
Ingeniería Domótica, S.L.	Teknologikoa	2011	335.288	364.708	29.420
Interesa Consultores	Teknologikoa	2007	36.000	36.000	0
Inveready Seed Capital	Teknologikoa	2011 eta 2012	81.526	81.526	0
Job Acomodation, S.L.	Bestelakoak	2012	90.000	30.000	-60.000
Líneas Aéreas Navarras	Bestelakoak	2005	237.400	0	-237.400
Maderas Olazti	Bestelakoak	2003	601.040	1	-601.039
Mondragón Navarra SPE	Bestelakoak	2013	550.000	550.000	0
MTS Tobacco	Bestelakoak	2013	192.324	1	-192.323
Nanotech Fund FCR	Teknologikoa	2011	2.000.000	1.943.974	-56.026
Navarra Excelencia Turística	Turismoa	2005	1	1	0
Navarra Verificaciones Legales SA	Teknologikoa	2006	66.111	54.090	-12.021
Noi Navarra, S.A.	Energia eta ingurumena	2011	2.529.540	178.162	-2.351.378
Olus Tecnología	Nekazaritza-elikagaiak	2013	378.000	1	-377.999
Open Bravo, S.L.	Teknologikoa	2008	25.000	25.000	0
Pamplona Learning Spanish Institute, S.L.	Bestelakoak	2012	499.624	1	-499.623
Principia Technology Group, Inc.	Teknologikoa	2011	505.501	350.000	-155.501
Professional Buying&Logistics Serv.	Teknologikoa	2007	618.835	256.420	-362.415
Sistemas Marketing Directo	Bestelakoak	2005	522.881	0	-522.881
Sodexna	Enpresa publikoa	2004	1.202	2.345	1.143
Sosy Investments	Bioteknologia	2008	730	993	263
Tenaria, S.A.	Teknologikoa	2005 eta 2008	12.835.646	5.184.284	-7.651.362
Tutti Pasta, S.A.	Nekazaritza-elikagaiak	2008	530.492	599.950	69.458
Twin Screw 2007, S.A.	Nekazaritza-elikagaiak	2011	70.000	72.621	2.621
Wututu, S.L.	Teknologikoa	2010	499.953	89	-499.864
GUZTIRA			97.516.179	439.834.847	342.318.668

4. ERANSKINA: 2013ko ABENDUAREN 31n PARTE HARTUTAKO ENPRESAK

Enpresa	Jarduera	Partaidetzaren hasiera		2013/12/31	
		Kostua	Partaidetza (%)	Balio garbia	Balio garbia (%)
Potasas de Subiza	Ingurumen jarduera eta industria ehundura berrosatzea	Nafinco	6.469.785	100	979.513
Caviar Perse, S.L. (Piscifactoría Sierra Nevada, S.L.)	Kabiarrar egitea	2008	8.774.095	80	215.000
Start Up Capital Navarra, S.A.	Enpresak sustatzea aidi baterako partaidetzaren bitartez	2000	2.766.000	50,55	
Deltor Green, S.L. (1)	Jarduerarik gabe	Nafinco	2.709.266	50	0
Angel Garro, S.A. (1)	Gozogintza eta opilgintza industriala	2007	1.304.011	45	0
Bioenergía Mendi, S.L.	Minden tratamendurako biogasaren bidezko kogenerazio planta	2010	239.625	45	239.625
Ecoenergía Sistemas Alternativos, S.L.	Minden arazketari buruzko patenteen usiaketa	2003	428.942	45	0
Eolive Vertical, S.L.	Sektore eolikorako mantentze, prebentzio eta ingeniariatza zerbitzuak	FJ	45.000	45	0
Futura Acorp, S.L.	Teknologia berrien arloko konponbideak ikertu eta garatzea	NGA	1.168.069	45	87.500
Lorpenak, S.L. (1)	Kirolerako galtzerdien fabrikazioa eta merkaturatzea	2002	810.576	45	0
Investigaciones y desarrollos eólicos, S.L.	I+G, energia sortzeko teknologiaren berrikuntza sustatu eta eraikitzea eta hartarako materiala	2010	572.727	45	286.364
Navarra de Tratamiento del Agua, S.L.	Urairet tratamendurako osagaien fabrikazioa eta salerosketa	2009	378.789	45	0
Parque de la Naturaleza de Navarra.	Aisiako instalazioen usiaketa	2001	4.050.000	45	0
Albyn Medical, S.L.	Medikuntzarako ekipamendua eta kontsumigarriak diseinatu, fabrikatu eta merkaturatzea	2006	730.000	42,60	427.853
Aprovechamiento Térmicos Ermitagaña, S.L.	Energia berriztagarriak ekoitzi, garatu eta aprobetxatzea	2013	1.204	40	1.204
Aprovechamiento Térmicos Landaben, S.L.	Energia berriztagarriak ekoitzi, garatu eta aprobetxatzea	2013	1.204	40	1.204
Soluciones y Sistemas Solares, S.L.	Energia sortzea energia berriztagarrien bidez	2007	1.000.000	37,35	0
Fondo de Desarrollo Turístico, S.P.E., S.A.	Turismoko eta aisiako enpresak bultzatu eta sustatzea	2003	1.223.939	36,53	0
Suan Biotech, F.C.R.	Bioteknologiaren sektoreko arrisku kapitaleko funtza	2007	2.910.000	34,84	2.289.424
ID ingeniería acústica, S.L.	Zaratari buruzko mapa estrategikoak. Aretoak diseinatu eta akustikoki egokitzea.	FJ	10.000	33,33	6.972
KYB Advantice Manufacturing Spain, S.A.	Moteligailuen fabrikazioa	2009	5.000.000	33,33	5.000.000
Formune, S.L.	Produktu mediko eta farmazeutikoen I+G eta fabrikazioa	2012	1.125.000	32,14	1.125.000
Natural Climate System (Miyabi)	Etxebizitza bioklimatikoaren garapena	2001	999.750	31,50	0
Navarra Iniciativas empresariales (1)	Enpresak sustatzea aidi baterako partaidetzaren bitartez	Nafinco	6.972.000	30,82	0
Pharmamodelling, S.L.	Prozesu farmazeutikoen eta farmakodinamikoaren aholkularitza	FJ	65.000	29,76	14.657
3P Biopharmaceuticals, S.L.	Gratu farmazeutikoko substantzia terapeutiko biologikoen merkataritza	2007	2.505.140	29,01	2.505.140
Twin Screw 2007, S.A.	Kontabilitate-, finantzaketa- eta kudeaketa-zerbitzuak (osasungintza eta elikaduran)	2008	1.594.286	28,53	1.594.286
Ronda TIC FCR	Enpresa txiki eta ertainetan inbertitzeko funtza	NGA	2.850.000	28,50	905.941
Cromasa Identificación Electrónica, S.A. (1)	Animaliak identifikatzeko txipak fabrikatu, merkaturatu eta jartzea	2004	457.088	26,84	0

Enpresa	Jarduera	2013/12/31		
		Partaidetzaren hasiera	Kostua	Partaidetza (%)
M.C.C. Navarra, S.P.E.	Enpresak sustatu eta bultzatzea	2001	952.530	25
Laboratorios Ojer Pharma, S.L.	OTC sendagai dermatologiko berriak garatzea	2007	526.790	22,99
Punto Futuro FCR	Nekazaritza-elikagaien sektoreko proiektuetan aldi baterako parte hartzea	Nafinco	3.200.070	22,29
Mizanor, S.A. (2)	Plater aurrez kozinatua	2009	1.319.440	21,71
Angel PC Global Support, S.L. (1)	Informatika arloko laguntza teknikoa	NGA	790.000	20,0
Caviar del Reyno, S.L.	Kabiarrak egitea	2008	14.535	19,50
Sociedad Logística Alimentaria Navarra, S.A.	Elikagai izoztuen biltegitratzea	2004	600.000	18,17
Intelligent Software Components, S.L.	IKTen arloko ikerketa Softwarea diseinatu eta garatzea	NGA	1.100.000	18,03
Tedcas Medical Systems	Osasunaren sektoreko bideratutako teknologiak	2013	450.000	18
Metsola Birding, S.L.	Izaban apartamentu turistikoak ustiatzea	FJ	145.000	17,12
Estudios de Ingeniería Adaptada, S.L.U.	Ustiatuta elektronikoko jarduerak	2007	6.060.831	17
Proretina Therapeutics, S.L.	Erretinaren degenerazioak tratatzeko sendagaiak	2009	608.999	16,28
Idifarma Desarrollo Farmacéutico, S.L.	Botikak	2006	1.203.351	15,58
Fondo Ysios Biofund	Bioteknologian espezializatutako inbertsio funtsa	2008	9.226.677	14,45
Enne Digital Entertainment, S.L.	Aisiarako eta hezkuntzarako eduki digitalen sorrera	NGA	3.999.628	10,25
Digna Biotech, S.L.	CIMA, S.L. biomedikuntza proiektutik lortutako patenteen ustiatzea	2003	3.297.880	8,18
Proyecto Biomedicina CIMA	Inbertsio bioteknologikoen garapena eta ustiatzea	2003	266.014	8,00
Palo Biofarma, S.L.	Farmaziako produktuak	2013	694.453	8,00
Inveready Biotech II, S.L.	Bioteknologiaren arloko inbertsio funtsa	2013	245.000	6,91
Inveready Seed Capital	Oinarri teknologikoko enpresa berritzaileetan inbertitzea	2008	918.474	6,44
Iberdrola	Energia elektrikoa ekoitzi, eraldatu eta banatzea	2005	211.610.034	0,47
Open Bravo	Kode zabaleko ERPa garatu eta merkaturatzea	2006	1.598.406	0,06
Nafarroako Rural Kuitxa	Finantza-eragiketak	2012	360	360
GUZTIRA			305.989.968	164.183.181

(1) Likidazioan edo hartzekodunen konkurtsuan dauden enpresak

(2) 2013ko irailean likidatutako enpresa

Nafinco: Navarra de Financiación y Control societate publikoa

FJ: Fondo de Jóvenes Empresarios societate publikoa

NGA: Navarra de Gestión para la Administración societate publikoa

